



jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gure!
artean
euskaraz



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

HERRIRIK HERRI >



EHNEk eta Erraldek abeltzainekin batzar irekia egin zuten hiltegian, egoeraren berri eman eta etorkizuneko urratsak azaltzeko.

Erralderi oztopoak ugaritu egin zaizkio aurten

Bizkaian zabalik dagoen hiltegi bakarrari arazo ugari pilatu zaizkio aurten. Berriz eraiki gura duten hiltegi berria da proiektuaren gakoa. Erraldek biziraun dezan proiektu berria finantziatzeko Bizkaiko udalei deialdi orokorra egin zien. Gaur egun 15 udalerrik osatzen dute Erralde –bere sasoian 48 udalerriziren–, eta 112 daude Bizkaian. Hiltegiako arduradunek azaldu dutenez, Erralderen egoera herriz herri azaltzeko asmoa daukate.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren itxiera iragartzea izan zen sektorean hautsak harrotu zituen albistea, azaroaren 24an. Europar Batasunak azpiegituren inguruan indarrean duen araudia Erraldek ez duela betetzen jakitera eman zuen Osasun Sailak, bera baita araudiaren betearazlea.

Erraldek gaur egun darabilen egoitza Durangoko Udalarena da, eta hainbat bider luzatu dio baimena hiltegiari, Berrizko proiektua atzeratzen zebilela ikusita. Irailaren 30ean amaitu zen bien arteko kontratua. Durangoko Udalak kontratu berria bidali zion iraillean, baimena gehiago luzatzea gura badute, bete beharko dituzten baldintzak zehaztuz: Erraldek Berrizen egiteko asmoa duen hiltegi berriak finantziazio bideak

Berrizen eraiki gura duten hiltegi berria da proiektuaren gakoa

badituela frogatzea eskatu zion; Erraldek eskatutakoa frogatuko balu, kontratua 2014ko urtarrilaren 31ra arte luzatuko litzateke.

Auzokide Batzordeak ere hiltegi berria egiteko finantziabideak azaltzeko eskatu zion, bete ezik 2012ko lehenengo egunean jarduera bertan behera uzteko konpromisoa hartzen bazuen. Ezziren akordiora heldu. Auzotarren Batzordeak Erralderen zuzendaritza dela gertatzen denaren “erantzule” adierazi zuen, eta EHNE, Bildu, harakinak eta artzainak kritikatu zituen. Durangoko Bilduk, kritikei erantzunez, kontrolmahaia eratzea proposatu zuen.

Egoera horretan, EHNEk proiektuari babesa emateko deitutako manifestazioak Durangoko kaleak zeharkatu zituen abenduaren 11n. ■ Jone Guenetxea

UDAL HAUTESKUNDEAK

Bildu izan da lehen indarra Durangaldean, EAJri aurea hartuz

Ekainaren 11n eratu zituzten udalbatzarrak; aginte-hartzeetan aurreikusi zitekeena bete zen

Durangaldea • Auzitegi Konstituzionalak Bilduren babes-helegitea aintzathartu ondoren, indartsu sartzeari lortu zuen Bildu koalizioak, Hego Euskal Herri osoan eta Durangaldean ere: 10.921 hautesleren sostengua eta 59 ordezkari lortu zituen Bilduk. EAJk 43 ordezkari lortu zituen, eta PSE-EEK zortzi. Ordezkaririk barik geratu zen EB-Berdeak eta Aralarrek Durangoko zinegotzi biak mantendu zituen.

Azaroaren 20ko Espainiako hauteskundeetan ere Ezker Abertzalea nagusitu zen

Ekainaren 11n ez zen sorpresarik egon aginte-hartzeetan, baina tentsioa bai, Elorrioren: bozkatuena izan zen Bildu, eta EAJk zinegotzi kopuru bera lortu zuen.

PPk aurretik esandakoa betez, Ana Otadui jeltzaleari eman zion botoa.

Mañarian eta Zaldibarren ere izan zen aginte aldaketa, Bilduk lortu baitzuen alkatetza. Bildu Atxondon, Otxandion, Izurtzan eta Mallabian ere nagusitu zen. EAJk Durango, Iurreta eta Berrizko alkatetzak mantendu zituen. Garain Herriko Taldeak irabazi zuen eta Abadiñon independenteek.

Espainiako hauteskundeak Espainiako kongresu eta senaturako bozka ematera ere egon dira herritarrek deituta azaroan. Amaier koalizioak lortu zituen boto gehien Durangaldean: Abadiño, Atxondo, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldibarren nagusitu zen. EAJk Durango, Berriz eta Garain lortu zuen boto gehien.



Elorrioren tentsioa uneak bizi izan ziren bilkura aretoan. J. De la Cruz

EAJ buru Amankomunazgoan

Durangaldea • PSE-EEK Bildu eta EAJko hautagaien balizko berdinketa apurtuta, Oskar Zarrabeitia jeltzaleak hartu zuen Amankomunazgo gida ritza urrian, eta Bilduko hautagai Arrate Elkorok 2. alkateorde kargua hartu zuen; Fernando Cas-

tillo sozialista hautatu zuen 1. alkateorde Zarrabeitiak.

Bilduk sozialisten jarrera ez eze Abadiñoko Independenteen ere kritikatu zuen, ordezkari biak EAJri emateagatik. Lege-urratzerik egon den aztertuko dutela esan zuten.

ETA-REN KOMUNIKATUA

ETAk jarduera armatua utzi izanak itxaropena piztu du

52 urteko bide armatua behin betiko amaitzeko erabakia urriaren 20an eman zuten jakitera

Durangaldea • Gatazkaren konponbidea sustatzeko Donostiako Aiete jauregian egin zuten Nazioarteko Bake Konferentziaren eskariei erantzunez, ETAk “jarduera armatua” uzteko erabakia jakin eragin zuen urriaren 20an. Nazioartean, Euskal Herrian eta Durangaldean oihartzun handia izan zuen adierazpen historikoak. Alderdi politikoek, sindikatuak, eragile

sozialek eta oro har herritarrek pozik eta itxaropentsu hartu zuten “aro berri” baten hasiera.

Anbotok Ibon Garate otxandiarra eta M^a Carmen Hernandez durangarra elkarrizketatu zituen; hurren hurren, duela 11 urte Madrilen preso bat bisitatzetik zetorrela istripuan hil zen Ruben Garate “Anselmo”-ren anaia eta 2000. urtean ETAk hil zuen Jesus M^a Pedrosa zinegotzi popularren alarguna. “Konponbidean aurrera egiteko berba egin behar da, eta eskuzabalak izan”, Hernandezen berbetan; Garateren ustez, “Aieteko deklarazioko puntuetan dago gatazkaren konponbidea”.

Alderdi politiko, sindikatu, gizarte eragile eta herritarrek pozik hartu zuten adierazpena

HERRI BILGUNEAK

Presoen eskubideen aldeko ekimena

Durangaldea • Presoen eskubideen alde bidea egin guran Herri Bilguneak sortu dira abenduan. Ekimenak presoek eta euren senideek zein lagunek bizi

Herririk herri ahalik eta indar gehien batu gura dute ‘Egin dezagun bidea’ lelopean

duten egoera “bidegabe aginditzea” du helburu, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. *Egin dezagun bidea* lelopean, “herriz herri ahalik eta indar gehien bildu eta presoen egoera konpontze aldera” lan egingo dutela jakin eragin dute ekimenaren bultzatzaileek prentsaurrean.

GOI-TENTSIO LINEA

Goi-tentsioko lineari aurre egin guran

Durangaldea • Bizkaian Gueñesko azpiestazioa eta Gipuzkoan Ezkio-Itsasokoa lotuko lituzkeen goi-tentsioko argindar linea egiteko baimena eskatu du Red Elctrica de España enpresak. 72 kilometroko lineak Durangaldekobost herritako lurraz zeharkatuko lituzke: Iurretan, Garain, Berrizen, Mallabian eta Zaldibarraren eragingo luke.

Aurreproiektua eta Ingurugiro Proiektuaren Azterketa bidali zuten udalera martxoan, eta alegazioak aurkeztu dituzte. Apirilean, Lurra lurraren defentsarako erakundearen deia erantzunda, linearen kontra dauden herrietako udal ordezkariak batu ziren Berrizen, linearen kontrako manifestua sinatzeko.

BERBA BITAN

URTARRILA

Durangaldea • Pentsioen Erreformaren kontrako greba deialdiak erantzun zabalak izan zuten eskualdean.

Elorrio • 31 enpresak eta ostalarik lapurretan aurrean neurriak hartzeko eskatu zuten udalean.

Garai • Errematan 1.200 euro batu zituzten; Caritasi eman zioten dirua.

Iurreta • Berriztu egin zuten bideak seinaleztatzeko Arriandiko monumentua.

Mañaria • Udalaren orain hiru urteko agindua bete eta dorrera lekualdatu zuten Vodafone enpresaren antena.

OTSAILA

Abadiño • Kirolgunearen finantzabideari buruzko erreurtsoa aurkeztu zuen Ezker Abertzaleak.

Atxondo • Eskola handitzeko lehenengo pausoak ematen hasi ziren.

Durangaldea • 24.450 kilo elikagai batu zituen eskualdean Karabana Solidarioak, Tindufarako.

Durango • Kexak sortu ziren ginekologia zerbitzuan izandako atzerapenengatik.

Elorrio • 300 elorriarrek babesa eman zioten Gernika-ko Akordioari.

MARTXOA

Abadiño • Sute detektagailuak ipini zituzten 80 urtetik gorako en etxeetan.

Atxondo • Frankismoak herrian eragindako biktimen inguruko ikerketa hasteko lehen pausoa eman zuten.

Durangaldea • Emakumearen Nazioarteko Eguna ez eze, martitzen karnabal ospatu zuten martxoaren 8an.

Durango • Stop Accidentes elkarteak egoitza berria zabaltu zuen.

Mallabia • Gerediaga elkar-teko bazkide egin zen udala.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



durangaldeko astekaria

2011ko abenduaren 23a
10. urtea - urtekaria

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.



il Cafetto

by personal espresso

5 kafe barietate ezin hobe
kafetera bakar batean?

Espresso profesionala
Dosi bakarreko Personal Espresso sistema berriaren bidez, zuk zeuk egindako kafe espresso profesionala gozatuko duzu.

Zentzumenetarako plazer hutsa
Personal Esspreso, presioz aterata, kafearen usain eta zapore guztiak lortzen ditu.

Erraza, garbia eta azkarra
Kafe barietatea aukeratu eta kapsula kafeteran sartu baino ez duzu egin behar; segundo gutxitan kafe espresso profesionala eta ezin hobe izango duzu prest.

Primerako kafea prestatzea inoiz baino errazago.



La Tostadora dendara hurbil zaitez zure etxerako monodosietako espressorik onena ezagutzera
Andra Mari Kalea, 8 (Durango) – 946 814 836
Mazarredo zumardia, 8 (Bilbo) – 944 245 116

M15 MUGIMENDUA

Suminduak Durangaldean ere izan ziren

Durangaldea • Ekainaren 28an heldu zen Bilbon irten eta Madrilera joan zen Suminduen Martxa. Gernikatik Durangorako etapagin zuten. Arratsaldeko 18:00ak inguruan heldu ziren martxako kideak Gernikatik, eta Andra Mari-ko elizpean egin zieten ongi etorria Durangoko eta Ermuko asanbladek. Euroaren Itunaren kontrako idatziak, Greziari elkartasuna adie-

Madrilera bidean Durangaldean zehar pasatu zen ekainean Suminduen Martxa

razteko kontsignak, pegatinak, sloganak... banatzen jardun zuten Andra Mari-ko elizpean. Durangon Iñurri taldearen lokalean egin zuten lo, eta hurrengo goizean Urkiolara abiatu ziren; hurrengo eguneko etapan, berriz, Otxandiora joan ziren.

Uztailaren 22an heldu ziren Madrilera hainbat hiritatik irten-dako suminduak. Ekainean Durangoko herri-asanblada mar-txan jarri zuten.

KORRIKA



Berbarok, Plateruenak eta Anbotok lekukoa hartu zuten Durangon.

Durangaldeko euskaltzaleek bero hartu dute aurtengo Korrika ere

17. Korrikak apirilaren 14an bisitatu zuen Durangaldea, goizaldean

Durangaldea • Korrika gauez etorri zen aurtengo Durangaldera. Mallabian sartu eta Elorriotik irten arte, Durangaldeko herriak bete-z. Berbarok, Plateruenak eta Anbotok eraman zuten testigua Durangon, Landako etorbidean.

Mallabian sartu, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Iurreta, Durango eta Atxondo zeharkatu eta Elorri-ri irten arte euskaltzaleek babes-tuta ibili zen 17. Korrika.

Durangaldeko AEK-k gutun baten bitartez ekimenean parte

hartu duten guztiei esker ona adierazi zien. "Hurrengoan ere denok beharko zaituztegu", gogoratu zuten, "Korrika hain ederra eta arrakastatsua izan dadin". Korrikaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu zituzten.

GENERO BIOLENTZIA

Hildako emakume bat genero biolentziagatik

Fundifes zen eraikineko bigarren pisutik bultza eginda hil zen emakumea, ekainean, Durangon

Durangaldea • Fundifes zen eraikineko bigarren pisutik biko-te ohiak bultza egin ondoren, emakume bat hil zen ekainean Durangon. Indarkeria matxistak eragin-dako beste kasu batzuk ere azaldu ditu Andereak elkarteak: "Jaietan etxera gonbidatu zuen emakumea bortxatzen saiatu zen gazte baten berri ere izan dugu". Tabi-

ran, berriz, adin txikiko bat atxilotu zuten 16 urteko neskalaguna ostikoz jotzeagatik. Andereak eguenero elkarretaratzea antolatzen du, 20:00etan Andra Marian, beste elkarte batzuekin. "Itzelezko arazoa da", diote, "sustraitik, hezkuntzatik heldu behar zaiona".

Protokoloa

Biktimekin diharduten eragileen arteko koordinazioa hobetzeko helburugaz, bestalde, protokoloa sinatu dute Durango, Abadiño, Berriz eta Elorrioko udalek, Ertzaizak, Osakidetza eta Durangaldeko Amankomunazgoak.

Andereak eguenero elkarretaratzea antolatzen du 20:00etan Andra Marian

TRENA

Trena 2013rako lurperatuta egongo da

Durango • Iñaki Arriola sailburuak eman du data: trena lurperatuta egoteko aurreikusitako data berria.

Etxebizitza, herri-lan eta garraio sailburu Arriolari Durangon trenbide lurperatzeko lanen inguruan galdetu dio, abenduan, Aralarreko Dani Maeztu legebiltzarkideak osoko bilkuran.

Durango Operazioaren baitan trena 2013a baino lehenago lur azpitik igaro ahal izatea zerk eragotzen duen galdetu du legebiltzarkideak. Arriolak azaldu duenez, 2013an amaitutzat emango dute Durangon trena lurperatzeko proiektua. "Urte horretan bertan trena lur azpitik joango litzake", dioenez.

BIRIBILGUNEA

San Rokeko biribilgunea zabaldu dute

Durango • Zortzi hile iraun dute San Rokeko biribilgunea eraikitzeko lanek. Udalak eta Aldundiakiaz sinatutako hitzarmenaren ondorio dira. Martxoan hasi zituzten lanak, eta zortzi hilabete iraun dute; 1,6 milioi euroko inbertsioa eskatu dute.

Aparkekua

Durango aparkatzeko dagoen arazoari "konponbidea" eman guran egokitu dute aparkalekua San Roken, disuasio-neurri moduan.

82 ibilgailurentzako lekua dago, eta horietatik bi mugikortasun murriztua duten pertsonentzat direla jakitera eman du Durangoko Udalak.

BERBA BITAN

APIRILA

Atxondo • Andasto dantza taldeak antolatuta, lehen-go eta oraingo dantzariak jaialdia egin zuten.

Durangaldea • Hileta zibilen ordenantzak onartu zituzten Iurretan eta Durangon.

Durango • Kale-izendegian aldaketak egin zituzten, toponimia ikerketan oinarrituta.

Elorrio • Herriko andren historia batzen duen liburua aurkeztu zuten.

Izurtza • Ondarearen zerrendan sartu zuten Arana jauregia.

MAIATZA

Abadiño • Lege-iruzurra salatu zuen ELA sindikatuak udalaren kontratazioetan.

Berriz • On ein! Etxez etxeko janari zerbitzua aurkeztu zuten udalak.

Elorrio • Herritarren parte-hartzeagaz osatu zuten 3. Berdintasun Plana.

Iurreta • Bizkaiko Bertso Eskolen Eguna ospatu zuten maiatzaren 21ean.

Otxandio • Guraso eta umeen iritziak batu zituzten herrian, zabuguneak zelan egokitu erabakitzeke.

EKAINA

Durangaldea • Hilda aurkitu zuten Jose Luis Zubillaga EBko kidea, alderdiak Durangon duen egoitzan.

Durangaldea • 200 dantzari batu ziren Gerediagak eratutako Dantzaroan.

Durango • Intxaurre elkar-tearen 25. urteurrena ospatu zuten; Tronperri dantza taldeak 50 urte bete zituen.

Iurreta • Goiuriko kofradia udala salatu zuen, bost urte eta gero zaborte-giari lizentzia ematearren.

Otxandio • Gaztetxearen 10. urtemuga ospatu zuten.

Zorionak eta urte barri on!



Jasangarritasuna bermatzen



ziurtagiriaren bitartez

Jai zoriontsuak pasau daizuezelako opa deusue!

MEDEURRENA

Gorde den herriko banderarik zaharrena omentzeko urtea

Iurretako bandera zaharrenak 100 urte bete ditu aurten, eta hainbat izan dira ospakizun ekitaldiak



Azaroaren 12an egin zuten plazan ekitaldi nagusia.

Iurreta • 100 urteko historia batzen du bere baitan Iurretan gordetzen den herriko bandera zaharrenak. Urtemuga bereziaz jabetu, eta urte hasieran murgildu ziren ekitaldiak prestatzen herritarrak, 1911-2011 Herri Batzordean. "Iurretako bandera ez da dantzariena bakarrik; herri-

tar guztiona da", zioten Eneko Barroeta eta Asier Otadui batzordekideek urtarriko solasaldian.

Elkarteek ere parte hartu dute ekitaldien eraketan, ekintza propioei ere urtemugako kutsua emanaz. Azaroaren 12an egin zuten jaialdi nagusia, ikuskizunagaz eta herri-afariagaz.

ORTU LUDIKOAK

Durungaldean aitzindari den egitasmoa

Iurreta • Otsailaren 14an hasi ziren jardunean Iturburuko ortu ludikoetan; aurrez ikastaroa egin zuten izena emandakoek. 40 partzelarekin zuten udalak herritarren eskura ipintzeko. Erreminta eta abonua eskura izateaz gainera, Ramon Zearreta injineru agronomoaren laguntza izan dute erabiltzaileek.

Azaroaren 12an bazkari ekologikoan batu ziren partaideak, eurak hazitako produktuekin.

TRAFIKOA

Biribilgunea eginda N-634 errepidean

Iurreta • Martxorako prest zegoen N-634 errepideko biribilgunea. Ordura arte semaforo bidez erregulatzen zen trafikoa, eta biribilgune berriak trafikoa arintzea du helburu. Bizkaiko Foru Aldundiaren esku zegoen proiektuak 1,6 milioi euroko aurrekontua izan du. Lanak 2010eko azaroan hasi zituzten. Abadiñotik datozenek ez dute biribilgunean sartu beharrik Iurretako herrigunera sartzeko.

BASERRITARRAK

Baserritarrak erregulazio eske azokan

Durango • Merkatu plazan produktuak saltzen egoten diren baserritarrek azokaren egoera erregulatzeko eta hobetzeko hainbat neurri proposatu zituztenez udalari martxoan. Urdaspal Alberdi baserritarrak adierazi duenez, udalak "oraindik" ez ditu "ezelako batzarrera deitu gaiari buruz berba egiteko". Hainbat alderdigaz kontaktuak izan dituzten arren, "udalagaz ofizialki ez" direla batu dio: "Alderdiak jakinarazi digute gaia batzordean lantzen dabilatzala, baina errealitatea da bederatzi hilabete joan direla eta ez dela aurre-erapausorik eman".

Baserritarrek azokaren egoera erregulatzeko hainbat neurri proposatu zituztenez udalari

Baserritarren eskakizunak hiru puntutan laburbildu daitezke: eskuragarri dauden mahaien banaketa erregulatzeko, postuak dituzten ekoizleei aparkatzeko erraztasunak ematea, eta errebandedoreei aurre egitea. Bigarren fase batean azokaren nondik norakoak eztabaidatzeko alde biko batzordea eratzea ere proposatu dute.

BERBA BITAN

UZTAILA

Elorrio • Portugalera mar-txa egin zuten 60 herritarrek, Andoni Zengotitabengoa presoari babesa emateko.

Garai • 39. Ezpatadantzari Eguna ospatu zuten 16 talde eta 128 dantzariaren parte-hartzeagaz.

Iurreta • Arriandin oinezkoentzako pasabidea zabaldutuz, N-634 errepidearen azpitik.

Mallabia • Auzoekiko hartu-eman eta gazteria arloa indartzea zehaztu zuen udalak.

Zaldibar • Udalak Correo-sen bulegoko ordutegi murrizketaren kontrako sinadura biltza bultzatu zuen.

ABUZTUA

Abadiño • Udal ordezkariak eta 190 jubilatutik gora batu ziren abuztuko azken domekan Urkiolan, Errogi-tiba Eguneko bazkarian.

Elorrio • Argiñetako indusketarako diru-laguntza zalan-tzan geratu zen.

Garai • Udaletxeko teilatua konpontzen hasi ziren, 112.120 euroko inbertsioagaz.

Elorrioko Plazan

Abenduak **24**

Urtarrilak **5**

Dantzak

Besaide D.T eta Elorrioko Txistulariak

Badator Olentzero!

Errege magoen gaua

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
GABONAK 2011 / 2012						
11:30-13:30 / 17:00-20:00 Umeentzako Parkea H.A. frontoia 17:00 EMEK antolatutako II. Kuttun Ipuin lehiaketako sari banaketa. Arriola -Berrioko jaiak- Besaide Dantza Taldea	11:30-13:30 / 17:00-20:00 Umeentzako Parkea H.A. frontoia	17:00 Umeentzako Antzerkia "Río de Luna" Compania Date Danza (umeentzako -6urtera arte- antzerki dantza) Arriola	"Hordago ardoa" Artez jantzitako ardo dastaketa 18:00 euskaraz 20:00 elebiduna Arriola	10:30-13:00 Sto. Tomas azoka Herri eskola eta institutua Herriko Plaza 20:00 Koru jaiak Landarbaso Abesbatza Arriola	17:30 Olentzero Badator Olentzero! Herriko Plaza	
NEGUKO KANPAMENDUA Inxorta asti elkarteak. 6tik 16 urte bitartekoak						
11:30-13:30 / 17:00-20:00 Umeentzako Parkea H.A. frontoia 20:00 Zinea "Criadas y señoras" Arriola	11:30-13:30 / 17:00-20:00 Umeentzako Parkea H.A. frontoia	 Elorrioko udala	17:30 Erregeak Errege magoen gaua Herriko Plaza	17:00 Umeentzako Antzerkia "Ogro txikia" (+6urte) Gorakada Taldea Arriola 20:00 Koru jaiak Vocalia Ahots Taldea Basilika	09:00 Erdella M.T Gongetara irteera Herriko Plaza	09:00 Erdella M.T Erdellara irteera Herriko Plaza 20:00 Zinea "Criadas y señoras" Arriola
11:30-13:30 / 17:00-20:00 Umeentzako Parkea H.A. frontoia 20:00 Zinea "El niño de la bicicleta" Arriola	11:30-13:30 / 17:00-20:00 Umeentzako Parkea H.A. frontoia			20:00 Zinea "El niño de la bicicleta" Arriola	22:30 Zinea "El niño de la bicicleta" Arriola	17:00 Umeentzako zinea euskaraz "Katu bat Parisen" Arriola 20:00 Zinea "El niño de la bicicleta" Arriola

Antolatzaileak eta laguntzaileak: Elorrioko Udala, Arriola kultur Aretoa Herri-ikastetxea, Herri Institutua, Besaide Dantza taldea, Elorrioko Argazki Taldea, Kainabera GKE, Elorrioko Rugby Taldea, Erdella Mendizale Taldea, Inxorta Asti Elkarteak, La Esperanza Nagusien Elkarteak, Alargunen elkarteak, Garamenditar Agustín Musika Eskola, Berrio-Otxoa Abesbatza, Elorrioko Txistulariak, Iguriako eta Berrioko Auzo Elkarteak, Elorrioko Merkatarien Elkarteak. Eskerrak Olentzero eta Errege Magoei Elorriora etortzeagatik.


EKONOMIA

Udalaren errekurtsoen %120ko zorpetzea

Mañaria • Maiatzeko udal hauteskundeetan ondoren alkatetza hartu zuen Bilduk, eta “udala zer egoera ekonomikotan topatu” duen herritarrei azaltzeko gutun informatiboa banatu zuen udan. Idatzi horretan azaldu zuten, EAJko “aurreko gobernu taldeak 2001ean eta 2008an hitzartutako mailegu bi dauzka udalak”.

Ezker abertzaleko gobernu berriaren esanetan, datozen urteetako udal funtzionamendua eta kudeaketa baldintzatuko dituzte zor horiek: “Eguneroko errekurtsoen %120koa da udalaren zorpetzea, eta proiektuak eta obrak garatzea zailduko du”.

HARROBIA



Enpresari galerak sortzea egotzi zion Auzitegiak Jaurlaritzari.

Jaurlaritzak Zalloventari 9,2 milioi ordaintzeko agindu du Auzitegiak

2010eko uztailean agindu zuen Jaurlaritzak harrobia ixtea, baina eztabaidak lehengoan dirau

Mañaria • Zalloventa enpresaren ondareari “2006tik eragindako kalteagatik” 9,2 euroko kalteordaina beregain hartzeko aginduzion Auzitegi Nagusiak, urrian, Eusko Jaurlaritzari.

Urkiolako Parke Naturaleko Planaren 2006ko berrikuspenean, Zalloventa harrobiaren ustiapen eremua txikitzea erabaki zuten. Auzitegi Nagusiaren sententziak azaltzen duenez, “erabaki horregaz enpresari bere ustiapen eskubidearen zati garrantzitsua ken-

du zitzaion”. Epaiazen arabera, “ondarean eragindako kaltearen %20” ordaindu beharko dio Jaurlaritzak Zalloventa enpresari.

Interpelazioa

Abenduan Eusko Legebiltzarrean burutu zuten kontrolerako osoko bilkuran mahaigaineratu zuen Auzitegi Gorenaren agindu honekiko bere kezka Aralarrek. Enpresa horri “guztion dirutik 9 milioi euro ordaindu behar izateari ikaragarria” deritzo Aralarrek.

AURKIKUNTZA

Askondo koban Paleolito garaiko labar-artearen aztarnak aurkitu dituzte

Urte hasieran egin zuten aurkikuntza ikerlariek

Mañaria • Maiatzaren hasieran, Bizkaiko Aldundiaren Bilboko egoitzan aurkeztu zuten Urkuleta auzoko Askondo kobako aurkikuntza arkeologikoa. Diego Garate, Joseba Rios eta Ander Ugarte arkeologoek Paleolito garaiko labar-artearen erakusletzat jo dituzten hamabost irudiren aurkikuntza iragarri zuten.

Gorritz margozturiko bost zaldi, grabatutako zaldi bat, pintura

gorritz egindako giza-esku baten irudia, lerro eta puntuen irudiak, eta horman bi metrora sartutako hezur bat ere topatu zuten koban.

Euskal Herriko labar-artearen erakusle bakanetakoa topatu zuten bertan. Garate arkeologoaren berbetan jaso genuenez, “ez dira pintura asko, baina bai zientifikoki garrantzia izugarria daukatenak, garai horretako pinturak ez baitira arruntak gurean”.

EKIMENA

Haur eskolaren baldintzei buruzko kezkagaz bat egin dute 677 zaldibartarrek

“Eraikinaren desagokitasuna” salatu zuten

Zaldibar • Hezkuntza eremua- ren eta eskolako zein Haur Eskolako eraikinen baldintzekin arduratuta agertu ziren, joan zen ikasurtearen bigarren seihilekoan, Zaldibarko gurasoak.

Haur Eskolako gurasoek nabarmendu zuten, “eraikinaren desagokitasunak agerian utzi dituzte guraso zein hezitzaileek”. Salatu zuten, kezka horiez jarduteko batzarra eskatu zioten

2010 urte amaieran udalari, baina ez zuten erantzunik jaso. “Zaldibartarren laguntza” eskatu zuten urte hasieran, eta sinaduraz bilketa abiatu. “Udal agintariei batzarra eskatzeko” 667 sinadura bildu zituzten herrian.

Jolastokiaren egoerari, hezetasunari eta instalazio elektrikoari buruzko gurasoen kezkei “entzunger” egitea leporatu zioten gurasoek udalari.

EKONOMIA

Udaleko diru kontuen berri herri-batzarrean

Zaldibar • Maiatzeko hauteskundeetan jazotako gobernu aldaketaren ondoren, udalaren egoera ezagutu eta herritarrei jakinarazteko, urrian deitu zuen Bildu koalizioak lehenengo herri batzarra. Olazar pilotalekuan burutu zuten batzarra, eta 210 herritar bertaratu ziren.

Bankuekin hiru milioi euroko zorra daukala udalak jakinarazi zuen batzar horretan Arantzeta Baigorri alkateak. Hurrengo urteetan zergak errentaren arabera igotzeko asmoa dutela ere iragarri zuen Baigorri alkateak batzar horretan.

ERABAKIA

Alkatearen soldata %10 jaitsi dute

Izurtza • Bildu alderdiko Luis Jose Ballarin alkateak berak azaldu zuenez, “bizi dugun egoera ekonomikoa aztertu eta gastuak murrizten laguntzeko” helburuagaz proposatu zuen bere karguagatik soldata %10 jaitea.

“Bizi dugun egoera ekonomikoa aztertu eta gastuak murrizten” saiatu direla esan zuen Bilduko Luis Jose Ballarin alkateak

Udalaren iraileko ohiko osoko bilkuran egin zuen Ballarin alkateak proposamena, eta bere alderdiko zinegotzien aldeko bozkagaz onartu zuten aldaketa.

Bilduko alkatearen soldata murrizteko proposamenaren aurrean, abstentzioaren aldeko hautua egin zuten, bestalde, EAJko zinegotzi biek.

DIRU-LAGUNTZAK

Alokairuan bizitzeko eta haurrak izateko laguntzak

Izurtza • Seme-alabak erditu edo adoptatzen dituztenentzako diru-laguntza moduan banatzeko, 2.400 euro gorde zituzten 2011ko udal aurrekontuak atontzerakoan, Izurtzan.

Diru-laguntza zer baldintzaren arabera banatu zehazten duen ordenantza ere, udaleko alderdi biek batzordean landuta osatu zutena, onartu zuten urtarileko udalbatzar batean, aho batez. Besteak beste, eskatzaile bakoitzak gehienez 600 euro jaso ditzakeela zehazten du arautegi horrek.

Aurtengo udal aurrekontuan 10.000 euroko diru-atala gorde zuten alokairuan bizi direnei diru-laguntza eskaintzeko.

Izurtzarrak herrian bizitzen geratzera bultzatzea dute diru-laguntza biok helburu.

INAUGURAZIOA

Garai • Hiru fasetan garatu zituzten urte eta erdiko lanen ondoren, martxoaren 26 eguerdian burutu zuten Otea-Loran elkartearen gainean egokitu duten Garaiko Kultur Etxearen inaugurazio ekitaldia.

Durangaldeko ordezkari politikoak eta 60 herritar inguru batu ziren, 2009ko irailean atontzen hasitako eraikinaren lanen emaitza ikustera.

2009ko irailean hasi ziren, eta otsailean burutu zituzten azkeneko lanak

Dantzarien saioa, bisita eta luntxa burutu zituzten martxo amaierako ekitaldi hartan.

Igogailua ipini, teilatua konpondu eta fatxada margoztu zuten, 145.000 euroko aurrekontuagaz, lanen lehenengo fasean. Argiaren eta uraren distribuzioa egokitu zuten, eta komun berriak ere ipini zituzten, 129.784 euroko aurrekontuagaz, eta otsailean borobildu zituzten lanak.

Kultur Etxea inauguratu dute joan den udaberrian

Urte eta erdian, 3 fasetan burutu zituzten lanak



Otea-Loran elkartearen gainean atondu dute Kultur Etxea.

HIRIGINTZA

Udan amaitu dituzte lanak Berrio-Otxoa kale eraberrituan

Elorrio • Berrio-Otxoa kalea berriztatzeko bigarren fasea—Txan-txibiri kalea izenez ezagutzen dena—amaitu zuten udan. Iazko azaroan ekin zieten lanei, eta kale guztia oinezkoentzako egokituta geratu da. Egitasmoari amaiera emateko, 487.000 euroko aurrekontua onartu zuen udalak apirilean.

Kale horretako bizilagunen aldetik urteetan eskatutako eraberritzea izan da. Horren harira, kaleko jaia ospatu izan dute bost urtez, erreibindikazio modura.

Bertako bizilagunek urteetan eskatu izan dute Berrio-Otxoa kalea eraberritzea

Zerbitzuak berriztuta

Hirigintza lan konplexua zela aurreikusten zuten udal arduradunek lanei ekin baino lehenago, zorua altxatuta saneamendua, argiteria eta telefonia zerbitzuak berriztatuko zirelako.

Horretaz gainera, Kurutzia gurutzearen ingurua handitu, errepideagaz bat egiten duen Tanger tabernaren aurrealdea atundu eta kaleko argiztapena hobetu dute.

INAUGURAZIOA

Skate pista eta rokodromoa Urzabalen

Berriz • Urtarrilaren 10ean inauguratu zuten Urzabal skate-rokodromoa. Urzabal kalean dago azpiegitura berria, Berrizko Hiltegixe gaztetxearen atzealdean. Estalpeko kirol azpiegitura da, eta erabiltzaileentzat aldagelak, duxak, komuna, biltegia eta bulegoa daude bertan.

Skate pista U itxurakoa da. Pinua eta urki-zura erabili dituzte eraikitzeke. 140 zm-ko altuera dauka, eta patinatzeke azale-

ra 50 metro koadrokoa da. Luze-
ran 8,4 metro eta zabaleran 5,75
metroko pista da. Berrizburu kirol-
degian aire librean dagoen bai-
nuontzi itxurako pistaren osaga-
rri da barruko skate pista hau.

Rokodromoari dagokionez, 154 metro koadroko azaleran ego-
kitu dute boulderra. Hiru gune
egokitu dituzte, eskalada mailaren
arabera. Hasiera mailakoan, gehie-
nez hiru metroko altuera hartu
dute panelek. Erdi mailan, pane-
len altuera metro erdi garaiagoa
da, eta eskalatzeko hormaren
makurdura handitu egin dute.
Mailarik altuenerako, berriz, loka-
laren altuera guztia aprobetxatu
dute: 4,5 metro.

BIRZIKLATZEA

Konpostatzea: esperientziak eta asmoak

Berriz • Berrizburun kokatu-
ko den konpostaje plantarako
aurrekontua zehaztu zuen uda-
lak irailan. Guztira, 65.637 euro-
ko kopurua aurreikusi dute:
33.637 udaletik, 24.357 Bizkaiko
Foru Aldunditik eta 7.643 aurre-
ko legealdiko Ezker Abertzaleko
zinegotzien dohaintzatik.

Iazko irailean eta aurtengo
otsailean egindako ikastaroen
ondoren erabaki zuten experien-
tzia pilotu kolektiboari ekitea.

Izan ere, herritar guztiek ez dute
euren etxean konpostatzeko auka-
ra. Hasiera batean, 50 familiagaz
hastea aurreikusi dute. Hondaki-
nak etxe kanpoan, ontzi batean,
utzi beharko dituzte, eta behargin
batek batuko ditu atez ate, kotxe
elektrikoan. Udalak egin dituen
kalkuluen arabera, urtean 50 bat
tona hondakin konpostatuko lira-
teke, udalaren beharrezane aurre
egiteko birziklatuz.

Udalaren kalkuluen arabera, urtean 50 bat tona hondakin konpostatuko lirake

AZTARNAK

San Pedro Legañoako eremua berreskuratuko dute, ikusgai ipintzeko

Berrizko Udalak martxoan onartu zuen aztarna eremuaren azterketa sakontzeko proiektua



Prentsaren aurrean aurkeztu zuten ordura arte topatutakoa.

Berriz • Aurkitutakoa kontuan hartuta, San Pedro Legañoako hezurak Berrizko lehenengo biztanleenak izan daitezke; eremua herriko sorlekua izan daitekeen teoriak indarra hartzen du, beraz. Roman Rodriguez Calleja arkeologoak bertan egindako lanak eta ondorioak azaldu zituen. Histo-

riako hiru garai islatzen dituzten aztarnak topatu dituztela argitu zuen Rodriguezek, XI. XVI. eta XIX. mendeetakoak.

Azterketa arkeologikoak datorren urtean segituko du, eta berreskurapena amaituta interpretazio eremua sortzea da proiektuaren helmuga.

GABONAK 2011-2012

ABENDUAK 12-24

- Gutun eta postal lehiaketa
- Erakustoki lehiaketa

ABENDUAK 23

- "Olentzerori gutunak" Ibarretxe kultur etxean
- 10:00etan koplak abestuko dira etxez etxe. San Migel plazan
- 10:30ean antzerki saioa.
 - Txikientzako: "Mari Antzerki Taldea"
 - 5 urtetik gorakoentzat: "Ane Mona Oskola eta Karramarroi", Ibarretxe

ABENDUAK 24

- 11:30ean kalejira trikitilariekin Amilburu plazatik frontoira. Baserritar jantzita etorri!
- 12:00etan Olaburuko frontoian, Olentzero izango dugu

ABENDUAK 26, 27, 28

- 12:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00 Olaburu frontoian:
 - Urte eta gazteentzako parka (0-12 urte)
 - Txikientzako ludoteka (puzgarri, tailerrak,...)

ABENDUAK 28-29-30

- 18:00-20:00 Musikaria Kanean, Dantzari plazan

ABENDUAK 29

- 10:00-13:00, 5-14 urte bitarteko umeentzat PONI-PINA, Zelai-Alai zalditegian
- 17:00 - 20:00 Pailasoa globoflexiarekin

ABENDUAK 30

- 11:00-13:00 / 16:00-20:00 TREN TXU TXU
- Umeentzako ipuin kontalaria. Beatriz Egizabal. 11:30 (3-4 urte bitartekoak) 12:00 (5 urtetik gorakoak), Ibarretxe
- 12:30 Gutun eta postal lehiaketen sari banaketa

URTARRILAK 5

- Iluntzean, Erregeen kabalgata herrian zehar Ondoren txokolatea banatuko da

ondo pasa gabon jaiak!

IURRETAKO ELIZATEKO UDALA

GABONAK 2011-2012



OLENTZERO ETA MARI DOMINGI EGUNA

ABENDUAK 24, ZAPATUA

Goizeko 09:30ean Olakuetako plazan, auzoetara joateko
Arratsaldeko 17:00etan Olentzero eta Mari Domingirekin
irteera udaletxetik. Ibilbidea: Udaletxetik probalekura.
Animatu eta baserritar jantzita etorri!

GABONETAKO HAUR-PARKEA

URTARRILAK 3, MARTITZENA

Goizez: 12:00etatik 13:30era
Arratsaldez: 16:00etatik 20:00etara
Berrizburu kiroldegian



ERREGE EGUNA

URTARRILAK 5, EGUENA

Arratsaldeko 18:00etan erregeen kabalgata
Komentutik Olakuetako plazara joango da.

18:45ean probalekura helduko da.
Ondoren, txokolatea hartuko dugu

gabon zoriontsuak izan!



LANA



Sindikatuak elkarretaratzea antolatu zuten istripua salatzeko.

Behargin bat hil da urrian Estampaciones Bizkaian

Berrizko Mafisa enpresan 59 urteko abadiñar bat hil zen bihotzekoak jota

Durangaldea • Abadiñoko Estampaciones Bizkaia enpresan gertatutako istripuan langile bat hil zen eta beste bat larri zauritu urriaren 4an. Berrizko Mafisa enpresan, berriz, 59 urteko behargin bat hil zen bihotzekoak jota. “Lan istripu ez traumatiko” baten ondorioa izan dela onartzeko eskatu zioten zuzendaritzari

Langatazkei dagokienez, Elorrioko Fytasa eta Mallabiko Enva-

sa enpresak zarratu dituzte. Beste enpresa batzuetan, berriz, langileek mobilizazioak antolatu dituzte. Fundifes enpresako langile ohiek elkarretaratzea egin zuten udaletxe aurrean, Fundifesen lurretarako plangintza bat eskatzeko udalari. Ekainean, bestalde, Odi Bakarreko zuzendaritza eta langileak adostasunera heldu ziren. Prefabricados Alberdi, aldiz, enpresan langile bi “ile-

galki” kaleratu izana salatu du LABek. Mallabiko AP Iberican ere protesta ekitaldia antolatu zuten. Epaitegietan, Tabira egoitzan kaleratutako hiru beharginek eta Abadiñoko udaleko langile batek aldeko sententzia jaso dute.

Elorrioko Fytasa eta Mallabiko Envasa enpresek atea zarratu dute aurten

MEMORIA

Oroimen ekitaldi ugari Otxandio bonbardatu zutenetik 75 urtera

Oroimen ekitaldia antolatu zuten Andikona plazan



Nestor Basterretxeak eskultura inauguratu zuen Otxandion.

Durangaldea • Andikona plaza etabertarako beren-beregi Nestor Basterretxeak landutako eskultura inauguratu zituzten bonbardaketaren 75. urteurrenean. Ez ohiko udal bilkuran adierazpen instituzionala onartu zuten. Gerra

Zibila Otxandion liburua aurkeztu zuten Kultur Etxean; Eusko Ikaskuntzak eta udalak plazaratutako bekagaz Zigor Olabarriak burututako ikerlana da. Ikus-entzunezko ekitaldia hasi zuten Andikona plazan bertan, eta gero

ikuskizuna ekarri zuten Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta Nika Bitchiasvili musikariek. Horiek in batera, Traspasos dantza taldea ere aritu zen.

Berrizen udaletxeko lorategian orain urte batzuk inauguratutako *Oroimenaren Bidean* elkartu ziren; Errepublikaren kontra altxatutako frankistek 1937ko irailaren 11n fusilatu zituzten berriztarren izen-abizen, argazki eta gutun-zatiak bilduz Berriz 1936 Gogoratzen elkarateak osaturiko plaka inauguratu zuten. Berrizko sei emakume gaztek ere sufritu zuten Saturrarango kartzela frankistari buruz Txaber Larreategik eta Josu Martinezek osaturiko *Debekatua dago oroitzea* dokumentala ikusi zuten.

Durangon, Agurrik Gabeak ekimenaren barruan aureskuegiz eta lore eskaintzagaz hasi zuten oroimen ekitaldia. Karrika antzerki taldeak *Lurra astinduz* lana estreinatu zuen Santa Ana plazan, Durango 1936 kultur elkaratearekin elkarlanean. Abenduan, Unai Iturriaga eta Alex Sanviren Gerra Zibilaren inguruko *Udaberririk ankerrena* komiki liburua kaleratu zuten.

UR PARTZUERGOA

Abadiño Ur Partzuergoan sartu da

Abadiño • Abadiñoko Independienteen eta EAJren botoekin onartu zuten, azaroaren 2an, Abadiño Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren parte izateko tramitazioei ekitea. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, “derrihortuta” daude erabakia hartzerara: “Orain arte legez Bizkaiko Partzuergotik kanpora jarraitzeko saneamenduaren tarifa %90 igo beharko litzateke”.

Ateak itxita erabaki zuten udalak Ur Partzuergoan sartzeko tramiteei ekitea

“Hau bezalako gai bat udaletxeko ateak itxita erabakitzea” kritikatu zuten Bilduk, eta batzar aretotik alde egin zuten bost zinegotziek. Herritar batek bideo kameragaz grabatu gura izan zuten plenoa, eta arrazoi horrenatik alkateak plenoa ateak itxita egiteko erabakia hartu zuen. Bilduk azaldu zuenez, udalak Ur Partzuergoaren gaian “ez du beste alternatibarik bilatu, eta uraren kudeaketa absolutua galduko du”.

Plenoen grabaketen inguruan, bestalde, enpresa batek egin eta webgunean jartzea erabaki du udalak.

TOPONIMIA

Toponimiari buruzko mapa eta liburua

Abadiño • Hamabost urtean berrehun herritar baino gehiagok Abadiñoko ondare kulturalaren leku izenen berreskurapenean egindako ekarpenaren emaitza aurkeztu zuten ekainaren 29an, Errota kultur etxean.

Jose Luis Navarro Abadiño-ko alkateak, Argi Abad euskara zinegotziak eta Jose Inaxio Arribabalaga euskara teknikariak, Mila Salterain proiektuaren koordinatzaileak eta Euskaltzaindiko hiru ordezkariak hartu zuten berba kultur etxeko aurkezpenean. Mila Salterainek, gainera, udalaren eskutik Abadiño Saria jaso du abenduan.

Hamabost urtean berrehun herritar baino gehiagok parte hartu dute proiektuan

Komunikabideei zuzenduriko aurkezpena burutu zuten udaletxean, eta bertan nabarmendu zuten, “mapa toponimiko bat eta *Abadiñoko toponimia-Ahozko iturburuak, iturri dokumentalak eta bibliografiak* izenburua duen liburua dira hamarkada bat baino gehiagoan auzolanean egindako lanaren fruituak”.

BERBA BITAN IRAILA

Durango • 6.000 lagun batu ziren musika eta elkertasuna uztartzeko DuranWOP jaialdian.

Iurreta • Laixiarreko hitzorduan Biritxinaga eta Gere-diaga gogoratu zituzten.

Ma aria • Espainiako Vuel-taren harira, ESAITek bultzaturiko mozioagaz bat egin zuten udalak.

Otxandio • Euskal Western txapelketa jokatu zuten harezko futbol zelaian.

Zaldibar • Auzolanera deitu zuten udalak, parke bitan konponketak egiteko. 40 herritar elkartu ziren.

URRIA

Abadiño • Mariano Raxoik, egungo Espainiako presidentek, Estampaciones Bizkaia bisitatu zuen kanpainan.

Durangaldea • 500.000 euro industria sektorea lehia-korrago egiteko.

Durango • Iriondo familia minduta eta etsita agertu zen Estrasburgoren erabakiagaz.

Mallabia • UEMAn izandako ordezkari-tza uztea erabaki zuten EAJk.

Otxandio • Bizkaia eta Nafarroako 15 errementari batu ziren Errementarien I. Topaketan.

AZAROA

Berriz • Berrizburuko zaborte-gia zigilatze-ko lanak martxan.

Durangaldea • Durangaldeko Gazte Topaketetan, gogoeta eta jai giroan batu ziren Otxandion.

Durangaldea • Elorri-ko Mesie taldeak irabazi zuen Izarren Distira lehiaketa.

Durango • Pneumologia kongresua egin zuten hainbat adituk arnasketako gaitzen inguruan.

Iurreta • Herri biblioteka-ren 10 urteurrena ospatu zuten.

Ma aria • Udalgobernuak UEMAn sartzea proposatu zuten.

ABENDUA

Abadiño • 674 liburu herriko liburutegiari eman zizkion Jose Luis Lizundiak dohaintzan.

Durangaldea • Bizkaiko Foru Aldundiak Gere-diaga elkarteari eman zion Lauaxeta saria.

Durango • Bilduketa Aralarrek presoen aldeko baraualdia egin zuten.

Izurtza • Gaztaiardogi azokaren lehen edizioa ospatu zuten hilaren 6an.

ANBOTOK 10 URTE



Familia argazkia atera genuen Plateruenean.

Urteotan bidelagun izandakoei esker onez

Anbotok 10. urteurrena ospatu du azaroan

Durangaldea • Eskualdean kultura arloan, kirolean, euskalgintzan eta politikan jarduten duten hainbat lagun gerturatu da aurten Anbotoren 10. urteurrena ospatzera. Plateruena kafe antzokian ekitaldixume batez ospatu genuen urteurrena, eta urteotan herritarrek emandako bultzada esker-

tzeko aukera eman zuen urteurren ospakizun horrek.

Durangaldean euskaraz bizitzeko deneriko eragileekin elkarlanean jarraitzeko konpromisoari buruz berba egin zuen ekitaldian Anbotoko zuzendari Jone Guenetxeak. Eskerrik asko bide horretan elkartutako guztioi!

ETXEBIZITZA

Etxeak eraikitzeke eta saltzeko zailtasunak daude hainbat herritan

Hirigintza proiektuak mantsotu egin dira Zaldibarren, Abadiñon eta Atxondon

Durangaldea • Krisi inmobiliarioaren eraginak nabarmenak dira Durangaldean. Hainbat etxebizitza proiektu mantsotu egin dira azken hileetan, edo geldituta daude oraintxe bertan.

Zaldibarren, aurreikusita dauden etxebizitzaren artean, etxe tasatuak saldu ezinik dabilta; 48tik 22 saldu dira. Horrek babeseko eraikuntza atzeratu du, bere garaian tasatuen diru-sarrekin Solobarriako proiektu osoa –futbol zelaia, urbanizazioa eta babeseko etxeak– finantzatzearabaki zelako.

Abadiñon, Gantza-Zelaietako hirigintza proiektuan aldaketa partziala egin dute, enpresa eraikitzaileak lanak faseka egin ahal izateko.

Atxondon, Barraskiko obrak geldituta daude enpresa eraikitzaileak udalagaz daukan 325.000 euroko zorreratik. Bankua, enpresa eta udala hartu-emanetan daude arazoa konpontzeko.

Etxeen zozketak

Arazoak arazo eta atzerapenak atzerapen, hainbat babeseko etxe-



Abadiñon, Gantza-Zelaietako obrak.

Durango, Abadiñon eta Atxondon babeseko etxebizitzak zozkatu dituzte

bizitza zozkatu dituzte aurten: Durango, San Roken (170 etxebizitza), Abadiñon, Gantza-Zelaietan (54 etxebizitza), eta Atxondon, Arrazolan (4 apartamentu).

DIMISIOAK

Buruagak eta Espiauk zinegotzi kargua utzi dute

Atxondo • Legegintzaldi hasieran aurpegi aldaketak izan dira Atxondoko udalbatzan. Migel Angel Buruaga eta Jose Luis Espiauk euren zinegotzi karguei uko egin eta gero, Kike Garateketa Gaizka Uriartek hartu dute haien lekukoa, eta eurek dira orain, alkatetzeko Jose Antonio Igarzagaz batera, EAJko Atxondoko ordezkariak.

Buruagak azaldu zuenez, bere erabakian hauteskundeetan “herri mailan egondako zurrumurruek” eragina izan dute. Espiauk adierazi zuen ez duela bere burua “zinegotzi izateko pertsonarikegokiena” denik ikusten.

ESKOLA BERRIA

Obra moldatuta, eskoletako lanek aurrera jarraitu dute

Jaurlaritzak obrak eten zituen lursailen jabetza argitu arte, eta proiektua moldatu zuten gero

Atxondo • Otsailean eskola berriko lanak hasi eta gutxira, Euskalerria kaleko auzokide batzuek idatziak aurkeztu zituzten obretako lursailak euren etxebizitza kooperatibakoak zirela azalduz, eta hile eta erdian obrak gelditu zituzten lurren jabetza argitu arte.

Datorren Aste Santurako eskola amaituta egongo dela aurreikusi dute

Udalak Eusko Jaurlaritzara 1987tik gaur arteko eskritura eta dokumentuak aurkeztu ditu, eta, azkenean, obran moldaketak eginda jarraitu dute eskolako lanek. Aste Santurako eskola amaitzeaitxaroten dute, eta datorren ikasturterako eskolak emateko moduan egotea.

Eskolako irakasle eta gurasoek hainbat atxondarren babesa jaso dute, eta manifestazioak ere egin dituzte eskolaren alde. 700 sinadura batu dituzte Eusko Jaurlaritzara bidaltzeko.

ANBULATEGIA

Txiki gelditutako anbulategia handitu dute

Atxondo • Martxo amaieran amaitu zituzten anbulategia handitzeko lanak. Liburutegia eta postazerbizua lekuz aldatuta, 90 metro karratu izatek 160 metro edukitzera pasatu da orain osasun zentroa.

Iazko udazkenean hasi zituzten obrak, eta lanek iraun duten urtean, behin-behineko anbulategia izan zuten atxondarrek udal txiki alboko lorategian.

Anbulategiko beharrek 190.000 euroko aurrekontua izan dute, eta handituta, orain lau gela dauzka: pediatriaren gela, medikuntza orokorrekoa, erizaindegia eta sendaketa-gela.

TRENA

Trena herritik pasatzea eskatu dio Udalak ETSri

Mallabia • Donostia-Bilbo bikoizketa egiterakoan Mallabiatik trena pasatzeko aukeraz berba egiteko batzartu ziren urte hasieran udala eta Euskal Trenbide Sarea.

ETSek eskariaren arabera hartuko du erabakia, proiektuaren kostuagatik

ETSk lau aukera dauzka Zaldibar eta Ermua arteko zatirako, eta Mallabiatik hiru pasatzen dira. Proiektuaren kostua ikusita, ETSk azaldu du eskariaren arabera hartuko dutela erabakia.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

HIRI ANTOLAMENDU PLANA

Elorrion eta Mallabian onartu dute plana, eta Izurtzan lantzen dabilta

Izurtzan herri galdeketa egin zuten otsailean



Elorrion apirilean onartu zuten hiri antolamendurako plana.

Durangaldea • EHA izan ezik beste alderdi guztiek babes eman da onartu zuen Elorrioko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (HAPN) apirilean. Bozketa egin zuten udalbatzarrean, San Anton-

Herritarren parte-hartze prozesua martxan ipini dute Mallabian, plana osatzeko

go lurrak industriarako kalifikatzearen kontra testu bat aurkeztu zuten hainbat ekologista taldek eta eragilek. Oraintsu adierazi du Auzo Koordinadorak plana errekurritu egingo duela.

Mallabian Hiri Antolamendurako Plan Nagusia erredaktatzeko parte-hartze prozesua martxan jarri du udalak. Aholku Batzordeak sortu ditu eta kontseiluak erredaktatu du proposamena. Herritarren artean informazioa zabaldu eta alegazioak jaso ondoren, udalbatzarrek planaren aurre-berriketa aho batez onartu du.

Izurtzan industriaguneak ez handiatzearen alde bozkatu zuten gehiengoak

Herri galdeketa

Izurtzan herri galdeketa egin zuten otsailean, herritarren iritzia jakiteko. Izurtzarren %45 hurreratu zen herri galdeketa bere botoa ematera, 126 herritarguztira. Parte hartu zutenen %80k industriaguneak ez handitzearen alde bozkatu zuen. Horrez gainera, bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze, frontoia lekualdatu eta frontoi berriaren alboan erabilera anitzeko eraikina egokitzearren alde bozkatu zuen herritarren %59k.

Azkenik, Atxondon plana osatzen dabilta, eta 2012ko otsailean proposamena udalbatzarrera eramatea dute helburu.

HITZARMENA

Otxandio, Oleta eta Aramaioren arteko akordioa

Otxandio • Otxandioko eta Oletako alkateek eta Oletako Administrazio Batzordeko lehendakariak urtarrean sinatutako hitzarmenak udal biek eskaintzen dituzten zerbitzuetara herri bietako biztanleen sarbidea parraketa izan zuen helburu nagusi, horrela baldintza ekonomikoak berdinduz. Gerora zerbitzu gehiago eskaintzeko atea zabalik utzita, jarduera konkretu batzuen zerrenda osatu dute.

KONTSEZIOA

Zine zaharreko eskuduntza udalaren esku

Otxandio • Zine zaharra deitzen zaion eraikineko eskuduntza lortu du udalak aurtan. "Prinzipioz, anbulatorio berria eta adinekoentzako babeseko etxebizitzak eraikiko lirateke bertan", udal ordezkariak esan dutenez.

Eraikina dohaintzan jaso du Otxandioko Udalak, bere hiru jabeek edo euren ordezkariak horrela erabakita. Asmoak errealitate bihurtzeko lanean dabilta- la adierazi du udalak.

AHT

AHTko lanak astiro baina aurrera doaz

Durangaldea • Aurtan ere hainbat protesta izan dira Abiadura Handiko Trenaren kontra: mendi martxak, manifestazioak, kontzentrazioak... baina lanek aurrera jarraitu dute apurka-apurka. Ekainean, esaterako, Espainiako Sustapen Ministeritzak AHTaren proiektuko Elorrio-Atxondo zatia adjudikatu zuen. Zati hori Elorrion garatzen da osorik, eta 2,6 kilometro ditu.

Hil berean Abiadura Handiko Trena egiteko Orozketako lanetan "delitu zantzuak" egon daitezkeela adierazi zuen Bilbo-ko Entzutegi Probintzialak. Auzokideek eta AHT Gelditu! elkarlanak salatu zuten, zaborte-gezi zahar bateko lurrak "ezelako lege-gezi prozedurarik jarraitu barik" mugitu ziren: "Udalak hartu zituen laginak, baina gero ez zuten ezeregin". Alkateak salaketak ukatu zituen, eta AHTaren "eraginak minimizatzen" saiatu dela beti adierazi zuen.

Bestalde, 2008ko abenduan protesta ekitaldia egin zuten hiru gazte AHTaren kontra. Aurtan irten da epaia; urte eta erdiko kartzela zigorra eskatzen zuten hasieran, eta azkenean 40 eguneko isuna eta Euskal Trenbide Sareak eskatutako kalte-ordaina ordaindu beharko dute.





Egin
dezagun
bidea
eskubide guztiak euskal presoak euskal herrira.
KONTATU GUREKIN

ABENDUAREN 30ean 20:00etan
ANDRA MARI - DURANGO
URTARRILAREN 7an 17:30ean
AITA DONOSTIA - BILBO
(AUTOBUSERAKO EMAN IZENA INTXAURREN ETA MESOIAN)

KULTURA >



Zaletasuna partekatuz, argazkiei Begira

Ekainean eta uztailean burutu dute argazkigintza garai-kideari buruzko Begira jaialdia Durangon, lehenengoz. Roger Guaus kataluniarraren argazki erakusketa, Txelu Angoitia argazkilaria durangarrak zein Ricky Dávila bilbotarrak gidaturiko tailerrak, eta Jesus Mari Arruabarrena durangarraren *Ckristopania* erakusketa ekarri zizkigun, besteak beste, Begira jaialdiak.

Topaketa horretan parte hartuko zutela eta eurekin izandako berbaldian Angoitia eta Arruabarrenak esan zigutenez, 1987an Durangoko Merkatu plazan burutu zuten jaialdi bat du Begirak aurrekari. Zaletasuna konpartitu eta elkarrengandik ikasteko batu ziren orduan eta batu dira orain.

Argazkizaleen 1987ko topaketa hori lako beste hainbat kultur

adierazpenen, sorkuntzaren eta mugimenduren hamarkada izan zen 1980koa Durangaldean.

Hain justu, "hamarkada sortzaile, ekintzaile eta eraikitzaile; bizi, emankor eta esanguratsu" horretan ardaztu da aurten herriko hainbat kultur gile eta elkartek antolatutako Durangoko Platerueneko aste tematikoa: Zilar Astea.

1980ko hamarkadako giro horretatik jaiotakoa da uda partean berriz taularatu den musika talde bat ere: ekainean Plateruenean eskaini zuen kontzertua 1986 eta 1989 urteetan eskualdean punk doinuak zabaltzen jardun zuen Poliputos taldeak. Orain hiru hamarkada sortutako kanta haiek ez daudela desfasatuta erakutsi, euren kabuz diskoa atera, eta salgai ipini dute aurten. "Urteetan motelduta eta inertziari jarraituz

Argazkigintzari buruzko ekimenak ekarri zituen udan Begira jaialdiak

bizi izan garen arren, 1980ko hamarkadan legez jendea nazkatuta dago gaur egun ere", diote.

Hamarkada hartan sortuz, eta oso bizirik dirau maiatzean mende laurdena ospatzeko San Agustin kultur gunean erakusketa paratu zuen Kurutzia ga ikastolako antzerki tailerra ere.

Durangaldean sortzen, mugimenduan zabilatzatenei, inertziak apurtzen dituzuen eta zuzenean zein zeharka Anbotogaz kolaboratzen duzuen: eskerrik asko zuen ekarpenengatik! ■ I. Esteban

**XABIER
GAZTELUMENDI**

• Margolaria



“Ignacio Gaztelumendi osaba margolariaren eragina jaso dut”

“Errealitatea ahalik eta artifizio gutxienekin margotu gura dut”



**AITOR
AURREKOETXEA**

• Irakaslea

“Funtsezkoak diren pentsalarien teoriak azaldu eta gogoetak tartekatu ditut”

“Hainbat gogoetaren bitartez, artea kontzeptualizatu egiten du estetikak”

ZALOA FUERTES

• Argazkilaria



“Leku eta egoera ahaztuei buruzkoak dira erakusketako lanak”

“Analogikoan egin, eskaneatu eta gero tratatzen ditut”



ALBERT PLA

• Musikaria

“Gidoirik barik jardun gura nuen: Cortésekin egin daiteke hori”

“Aspertzen naizenean bururatzen zaizkit kantetarako ideiak”

MIKEL MARKEZ

• Musikaria



“Interesgarriak dira Kantulagun lako saio parte-hartzaileak”

“Distantzia laburra gustatzen zait; ikusleen mailatik kantatzea”

ANTZERKIA



Aritza Rodriguez zaldibartarra, Javi Tirado eta Iñake Irastorza dira obrako antzezleak.

Gorakadak FETEN saria jaso du, dramaturgia onenagatik

Durango San Agustinen estreinatu zuten ‘Ogro txikia’, iazko abenduan

Gorakada antzerki talde abadiñarrak 2010eko abenduan Durango San Agustinen estreinatu zuen *Ogro txikia* umeentzako obrak jaso zuen Europako FETEN antzerki lehiaketako dramaturgia onenaren saria, urte hasieran.

Antzerki sariketa horretan Gorakadaren lana goraipatu duten hirugarren aldian izan da: 2004an zuzendaritza eta eszenografia onenaren saria jaso zuten, *Jim altxoraren uhartean* lanagatik; 2006an,

Antzerki sariketa horretan Gorakada talde abadiñarraren lana goraipatu duten hirugarren aldian izan da

Askatasunari, arazoei aurre egiteari eta berdintasunari buruz dihardu ‘Ogro txikia’-k

berriz, ikuskizun onenaren saria *Robin eta Hood* obragaz.

Suzanne Lebeau Quebeckeko antzerkigileak 1997an argitaratu zuen lanaren moldaketa da Agurtzane Intxaurre eta Arantza Iturbek elkarlanean moldatu duten *Ogro txikia*: askatasunari, arazoei aurre egiteari, desberdinen arteko berdintasunari eta beldurrrari buruz diharduena.

Orain astebete, gainera, Abadiño Saria jaso du Gorakadak, sortu zen herrian bertan.

KANTAGINTZA

Bigarren saria Xaramelentzat Haur Kantarien Txapelketan

Durango neskek beste 26 taldegaz jardun zuten Euskal Herriko finalean

Durango, Abadiño eta Atxondoko ume eta gazteek ere parte hartu zuten Haur Kantarien Txapelketan. Xaramel taldeko neska durangarrek ere Plateruenean jokatu zuten herrialdeko kanporaketetan abiatu zuten, maiatzaren amaieran, Iparraldeko finaleraino eramane zituen lehiaketa. Tartean, ekainaren 5ean Bilboko Euskalduna jauregian, 600 lagun aurrean kantatu zuten: zortzi kopa eta txapel bi lortu zituzten.

Joan zen urtean, 2010ean, Durango Orfeo Txikiaren inguruan sorturiko taldea da Xaramel, zortzi lagunek osatzen dutena.

Nafarroa, Gipuzkoa, Baxena, Nafarroa, Araba, Bizkaia, Lapurdi eta Zuberoako haur eta gazteak parte hartu zuten Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketako finaleko txartela lortu zuten Euskaldunan. Bilbon legez, Lapurdin ere Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* kantatu zuten Durango Xaramel taldekoek.

Besteak beste, Plateruenean, Euskaldunan eta Hazparden kantatu dute Haur Kantarien Txapelketaren barruan

Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketaren bigarren saria eman zien epaimahaiak Durango zortzi neskei, eta kantua bigarren eskaini zuten: parte hartu zuten 27 taldeek elkarrekin kantatu zuten *Xalbadorren heriotzean*.



Durango zortzi neska gazteak osatzen dute taldea.

LITERATURA

Euskadi Saria 'Moroak gara behelaino artean?' lanarentzat

Azaroaren 23ko ekitaldian, arrebak jaso zuen Joseba Sarrionandiaren saria

Durangoko Liburu eta Dis-ko Azokaren atarian, Joseba Sarrionandiaren ize-
nean Marije Sarrionandia haren
arrebak jaso zuen saiakera saile-
ko Euskadi Literatura Saria.

Pamiela argitaletxeak 2010eko
Durangoko Azokan aurkeztu zuen
Joseba Sarrionandiaren *Moroak
gara behelaino artean?* goraipatu
du sariaren 2011ko epaimahaia.

"Justiziaren aurrean bere
egoera erregularizatu arte" Sarrio-
nandiak ez zuela zegokion diru-
saria jasoko azpimarratuz Jaurla-
ritzak urrian kaleratu zuen idatziak

Zazpi urteko lanaren emaitza:
Pedro Hilarion Sarrionandia
frailearen ibileren kontakizuna

zalaparta mediatiko-politiko han-
dia eragin zuen, eta Sarrionandia
famiariak ere "zuzenketa egitea
eskatu" zion Jaurlaritzari.

Zazpi urteko lanaren emaitza
da saria jaso duena: berbere kul-
turaren eta Arrieko hizkuntzaren
gaineko ikerketa egin zuen Pedro
Hilarion Sarrionandia fraile fran-
tziskotarraren ibileren inguruko
Moroak gara behelaino artean?.



Idazle iurretarrak erbestetik idatzitako gutuna irakurri zuen arrebak sari banaketa ekitaldian.

"Senarra bisitatzen
Alacant-eko kartzelara
doan emakumeari buruz
idatzi dut narrazioa"



GARAZI MUGERZA

• Ikaslea

"Zorretan nagoela
sentitzen dudanean
idazten dut batzuetan"



JON GORROÑO

• Diseinatzailea

"Proiektuak eta ametsak
komunikatzeko bidea
da niretzat sorkuntza"

"Marrazketa afizioa da
niretzat, norbere gustua
bilatzeko modua"

"80ko hamarkada landu
dugu Zilar Astea,
ikuspegi kritiko batetik"



UNAI ITURRIAGA

• Bertsolaria

"Elkarrizketatu guztiek
gura izan dute ihes egin
iraganaren mitifikaziotik"

GABONETAKO EKINTZAK MALLABIA 2011

ABENDUAK 24 LARUNBATA

- Olentzero
Mallabira dator!
Tokia: plaza
Ordua: 19:00etan
Antolatzaileak:
Orraitio euskara
elkartea eta
Zaparrada kultur
elkartea

ABENDUAK 27-28-29


- Zinea
Tokia: kultur etxea
Ordua: 18:30ean
Antolatzailea:
Futbito taldea

ABENDUAK 30 OSTIRALA

- 11:30-13:30 / 16:30-19:30
Haur parkea,
Mallabia I Kirol Etxean
Antolatzailea:
Mallabiko udala

ABENDUAK 31 LARUNBATA

- Antzararen jokoa
Tokia: eskolako frontoia
Ordua: 12:00etan
Antolatzailea: Futbito taldea
- Trikipotea tabernetan
Ordua: 19:30ean
Antolatzailea: Orraitio
euskara taldea



EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



EUSKAL BASERRIKO OILASKOA

Libre hazitako Baserriko oilaskoak, antzinako eran hazitako oilaskoen zaporea du. Zerealez osaturiko elikadura naturalak, %65etik gora artoa, atlantiar arraza eta hazkunde mantsoak, hiltzeko garaian duten gutxieneko 81 eguneko heldutasunak eta artisau erako ekoizpen sistemak erabat ziurtatzen dio kontsumitzaileari okela osasungarria, samurra eta zaporetsua, merkatuan aurkitu ohi denaren aldean oso ezberdina.

Eusko Labela duen benetako Baserriko Oilaskoa, osorik edo zatika merkaturatzen da eta, beti, Eusko Label-Kalitatea zeinuarekin adierazten da.

Oilasko osoen kasuan, izterrean edo hegalean ezarritako eraztunean ageri da zeinua, eta zatien erretiluetan, berriz, zenbakidun etiketan.

Eusko Labela duen baserriko oilaskoak produktore eta teknikarien laguntzarekin garatutako araudi zorrotza betetzen du. Araudian arraza, produkzio-sistema, elikadura, hautaketa eta produktua markatzeko modua definitzen dira.

Eusko Labela lortu nahi duten oilaskoak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ustiapenetan hazitakoak izan daitezke soilik, eta araudian ezarritakoa bete behar dute. Gainera, produkzio-mugen gehieneko neurriak bereziki zainduko dira eta, ustiapen bakoitzaren ezaugarrien arabera, produkzio-kopuru mugatua ezarriko da.

ERREZETA: EUSKAL BASERRIKO OILASKO BETEA

Osagaiak:

- Euskal baserriko oilasko bat
- Golden motako 3 sagar (karamelu likidoan egosiak)
- 150 g gaztaina-pure naturala.
- 12 tipulin
- 100 g onddo
- Baso bat ardo zuri



- 1.) Sagarrak prestatu eta gordinik lau zatitan ebaki. Flan batentzako bezalako karamelua egin, ura gehitu eta hantxe sagarrak egosi. Gaztaina-purea egi-teko, gaztainak -zurituak eta gordinak- estali arteko esnetan egosi behar ditugu. Puregailutik pasa eta gatza bota.
- 2.) Oilaskoari hezurak kendu behar dizkiogu, bizkarretik hasita bularrezurra atereaz. Izterrak eta hegaleak markatuta utziko ditugu. Oilaskoaren barruan gaztaina-purea kopuru ugari samar bat jarriko dugu, eta horren inguruan sagar egosiak. Oilaskoa itxi eta lotu egingo dugu, bere formarekin utziz.
- 3.) Oilaskoa betiko erara erreko dugu 50 edo 60 minututan, koipea kendu, ardo zuria gehitu eta erretakoaren zukua aterako dugu. Saltsa horretara, tipulin glasatu batzuk eta koipea kendu ondorengo saltsa horretan gorritutako 100 g onddo botako ditugu.
- 4.) Sokak kendu eta oilaskoa bero-bero zerbitzatu, bere saltsarekin.

ZOZKETA

Kalabaza Pudinga

OSAGIAK

- 500 gr. kalabaza (laranja)
- 3 koilarakada olio
- 3 eusko label arraultza
- Idiazabal gazta fin raiatua
- Esnegaina
- Gatza
- Piper hautsa

NOLA EGIN

Molde luze batean olio eta ogi xehetua igurtzi. Kalabaza zuritu eta karratutxoetan moztu. Zartagin batean olio jarri eta kalabaza frijitu, gatza gehituz. Ondoren gehiegizko ura kendu. Bitartean arraultzak, gazta eta esnegaina nahastu, gatza eta piper hautsarekin. Kalabaza gehitu eta nahastu. Moldean jarri eta labean sartu. Ura jarri labeko plakan (aukeran) eta 40 minutuz 180-200 gradutara eduki.



Azken zozketako irabazlea:
Iraide Iriondo Laucirica
Errezetak bialdu dituzuen gainontzekook
zuen kamisetan bila etorri zaitezke

MUSIKA TALDEAK



Urte hasieran aurkeztu zuen *Amaiera hasieran dator* Elorriko Sermond's taldeak.

Durangaldeko musika taldeen sorkuntza berriak, eta agurrak

Azken urteotan jarraitu ditugun Disorders eta Xarma taldeek agur esan dute urte honetan

Urtarrilean, Ondarroa eta Berrizko musikariek osatutako Xarma taldeak Danbaka maketa lehiaketa irabazi zuela iragarri hasi genuen 2011. Urtea amaitu orduko, udazkenean *Karenka* diskoa kaleratu ondoren, jakin dugu banatu egin dela taldea.

Zaldibarko Disorders taldea ere desegin da aurten, eta irailean eta urrian Plateruenean eta Zaldibarren eskaini zituzten despe-

dida kontzertuak, "hamarkada honetan ondoan izan ditugun lagunei eskerrak emateko".

Baina, hainbat proiektu sortu dira Durangaldean aurten. Euren

Sermond's, Shinova, Mongo, Kilauea, The Mockers, Antton, eta Namek Planet-en diskoak entzun ditugu, besteak beste

sorkuntzak jakitera eman, zabaldu eta iraunarazteko diskoak ere kaleratu ditu eskualdeko hainbat musika taldek.

Besteak beste, *Amaiera hasieran dator* izeneko diskoa plazaratu zuen, urte hasieran, Sermond's boskoteak; Internetetik deskargatzeko ipini zuen *La ceremonia de la confusión* diskoa apirilean Shinova taldeak; *Txoribigun* diskoa kaleratu du Mongo blueslariak; eta Durangaldeko Kilauea, The Mockers, Antton edo Namek Planet taldeen musika eta ibilbidea ere ezagutu ditugu.

MUSIKA

Zilarrezko domina jaso dute Aromak eta Barruetabeñak

Durangon burutu zuten omenaldian jaso zuten txistulari biek domina

Euskal Herriko txistulari elkarteak eskaintzen duen Zilarrezko Domina jaso zuten, azaroaren 5ean Durangon burutu zuten ekitaldian, Juan Antonio Aroma eta Carmelo Barruetabeña Durangaldeko txistulariek.

"Durangaldean hain ezagunak diren txistulari biek bizitza osoa daramate txistuaren doinua nonahi zabaltzen", azaldu zuten omenaldiaren bultzatzaileek; "Zaletasunez, herriarekiko konpromisoz eta txindurri lanean".

Durangaldeko hainbat dantza talderi musika jartzen jardun dute Aromak eta Barruetabeñak azken hamarkadetan, eta *Durango dantzan* (1776-1960) liburua eta Iurretako dantzak diskoa argitaratu dituzte, hurrenez hurren.



Txistuaren doinua nonahi zabaltu izana eskertu zieten.

San Agustinen azaroaren 5ean burutu zuten Txistularien elkarteak antolaturiko omenaldiaren ekitaldi nagusia

Hainbat musikarik hartu zuten Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatu zuen ekitaldian parte, Durangoko udaletxean ekin zieten omenaldirako prestatuko ekitaldiei, eta San Agustín kulturgunean batu ziren ekitaldi nagusirako: Euskal Herriko Txistulari Elkartearen presidentearen eskutik jaso zuten Aromak eta Barruetabeñak Txistularien Zilarrezko Domina.

ISAAC ERDOIZA

• Dantzaria



"Hasieran ez nuen itxaroten inoiz dantzatik bizitzerik, eta hainbeste sakontzerik ere ez"

"Lisboako arte zentro batean bizi izan nuen sormen prozesu bat lehenengoz"



JON IRIONDO

• Argazkilaria

"Argazki asko ikusten ditut, argazkilaria begirada garatzeko"

"Ezerezetik argazki eder bat ateratzeko, begiak eta burua prestatu egin daitezke"

GAIZKA ZABARTE

• Idazlea



"Iturriagak egindako azala da 'Zaharrak ez zuen hil nahi' nobelaren sinopsirik onena"

"Nobela orain lau urte inguru idatzi nuen, eta gordeta eduki nuen denbora batez"



LUIS MADINA

• Argazkilaria

"Argazkigintzaren aurretik zer ote zegoen hasi nintzen neure buruari galdetzen"

"Bidaiatzeko, argazkiak egiteko eta ikertzeko denbora gehiago eduki dut behin jubilatuta"

UNAI ZOCO


• Diseinatzailea



"Kolare gehiagokoa da erakusketa hau: kolore beroagoak erabili ditut koadro hauek egiteko"

"Freelance moduan egiten dut lan, eta noizean behin hau lako erakusketak prestatu"

“Etorkizunean dantzan modu profesionalean jardutea da nire asmoa”



MAIDER GONZALEZ

• Dantzaria

“Libre, ni neu sentitzen naiz dantzan egiten nabilen bitartean”



JABIER MUGURUZA

• Musikaria

“Hizkuntzak, publikoaren izaerak eta kulturak asko markatzen du emanaldi bakoitza”

“Obra berria zuzenean aurkezteko irrikitan egoten gara musikariok”



IGNACIO CONDE

• Argazkilaria

“Nire emazteak harra sartu zidalako hasi nintzen argazkigintzan”

“Argazkizaleen talderen batean sartzeko gogoia daukat gehiago ikasteko”

ZINEMA

Baleukok ‘Zerutik sua dator’ dokumentala aurkeztu du

Bilboko Zinebi jaialdiaren barruan, azaroan aurkeztu zuten dokumentala

Herriarren parte-hartzean oinarritutako egitasmoa da, bederatzi hilabeteko lanaren ondoren, *Zerutik sua dator* dokumentala fruitu eman duena.

Otsailean aurkeztu zuten egitasmoa, eta 37 herritako elkarteekin egin dute lan



Baleukoren kalkuluen arabera, 3.000 lagunek hartu dute parte.

Joan zen urteko azaroan aurkeztu zuen Durangoko Baleuko ekoiztetxeak *Izarren argia* filma; Frankismo garaian Saturrarango emakumeen kartzela izandakoa-ri buruzkoa zen film hura. Egoitz Rodriguez zuzendariagaz *Zerutik sua dator* lanari buruz izan genuen berbaldian azaldu zigunez, pelikula hura egin ondoren “egitasmo berria gizarteratzeko beste bide batzuk bazeudela” ikusita ekin zioten proiektu honi.

Otsailean aurkeztu zuten “oroimen historikoa berreskuratzeko egitasmoa”, eta 37 herritako elkarteekin hasi ziren lanean. Baleukoren kalkuluen arabera, zuzenean edo zeharka, 3.000 lagunek hartu dute ekimenean parte.

IURRETA-DURANGO

Tiliño omendu zuten ekaineko Trikitixa Egunean

Euskal Herriko trikitilarien eta trikitizaleen topagune izateko antolatutako zuten ekainaren 4an Trikitixa Eguna, Durangon eta Iurretan.

Euskal Herriko alde guztietako trikitilariak batu ziren ekitaldietara, eta Jose Jabier Abasolo “Tiliño” omendu zuten. “Francoren dikta-

duraren garairik ilunenean, euskal kulturaren berpizkundean lan asko egin izana” eskertu zioten Abasolo iurretarrari. Euskal Herriko Trikitixa Egunaren antolatzaileek azpimarratu zuten, “Tiliño-aren lana izan zen baserriz baserri errepresioak estali gura izan zue-na kalera ateratzea”.

ABENDUAK 23

- 18:30ean, Anbrozi eta Argitxok, Olentzaroren gutunak batuko dituzte plazan.
- 19:00etan, Gabon kantaldia Otxandioko elizan: Otxandio, Oleta, Legutio eta Ubideko kantak.

ABENDUAK 24

- 18:30ean, Udal musika bandaren kalejira
- 19:30ean, Olentzaro, herriko txistulari eta Oihandi abesbatzarekin batera, herriko kaleetan zehar gabon kantak abestuz. Ondoren, ardo beroa eta gaztaina erreak, Paseoleku jubilatuen elkarteak.

ABENDUAK 25

- 12:00etan, txistularien kalejira.
- 13:30ean, Udal musika bandaren kontzertua, kontseilupean

ABENDUAK 28

- 19:00etan, Euskal Selektzioa Tunezkoaren aurka ikustera joateko autobusa jarriko da. Erreserbak 23a arte udaletxean.

ABENDUAK 30

- 17:30ean, Ipuin kontalaria + txokolatada.

ABENDUAK 31

- 09:30ean, Urteko azken mendi irteera Arangio mendira.
- San Silvestre jaia umeentzat Mainondoko gimnasioan: Goizean: egurrezko jostailuen tailerra
- Arratsaldean: “Irrien lagunekin kanta ta dantza” ikuskizuna
- 19:30ean txistularien kalejira.

URTARRILAK 4

- 17:30ean Zinema umeentzat kultur etxean

URTARRILAK 5

- Elkartasun eguna. Gazte Asanblada eta Amnistiaren Aldeko mugimenduak



OTXANDIOKO UDALA



GABONAK
2011

KIROLAK >



Durango Rugby Taldeak hamaika ekitaldi egin ditu aurten 25. urteurrena gogoratzeko eta ospatzeko. Kepa Aginako

Iaz Tabirakoren 50. urteurrenak ireki zuen urtekariko kirolen atala. Aurten beste urteurren bigaz ekingo dio urteko errepasoari, biak errugbiari lotutakoak gainera: Elorrio Rugby Taldeak 30 urte egin ditu eta Durango Rugby Taldeak 25.

2011 urtean zehar hainbat jaialdi eta ekitaldiren bidez gogoratu eta ospatu dituzte urteurrenak. Dena dela, ospakizunen ajeak ez die biei berdin eragin. Durango Ilarduyaren talde nagusia gorriak ikusten dabil aurten mailari eusteko. Elorrio, aldiz, euskal ligako igoera fasera sailkatu da erakustaldiak emanez.

Saskibaloian iazko ametsetik errealitatera bueltatzea egokitu zaio Tabirakori. EBA mailatik jaitsi egin dira, itxaroten zen moduan. Klubak normaltasunez hartu du

Errugbia, sustraiak gogoratzuz

jaitziera eta filosofia propio horregaz jarraitzeko asmoa erakutsi dute.

Futbolean eta areto futbolean igoeren eta jaitzieren dantza izan dugu, urtero legez. Durango Taldeak ordezkari asko dituen, maiatzetik aurrera bitartean gori gori egoten dira ligak. Iurretakok goren mailara igotzea lortu du aurten; liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan segurtatu zuen igoera. Iurretakoren lorpenari Zalduek jarraitu zion eta lehenengo zabalitza gorenean. Maila berean zebilen Elorrio ere, baina beste denboraldi harrigarri baten ondoren ohorezko mailara igotzea lortu zuen; Berrizek ere bide bera egin zuen, baina kontrako norabidean, zoritxarrez.

Areto futbolean hirugarren maila azpimarratu behar dugu.

Hantxe batu ziren maila galdu zuen Sasikoa, mailaz igo zen Mallabia eta lehendik ere bertan zebilen Elorrio. Sapuberrik eta Abadiñoko Lagunek mailaz igotzea lortu zuten, eta Kurutziagak ere mailari eutsi zion azken unean.

Izen propioen zerrenda ez dago berba gutxitan laburtzerik. Jon Karro eta Igor Urien abadiñarek handiak egin dituzte triatloian eta auto lasterketan. Txirrindularitzan Eneritz Iturriaga, Ziortza Isasi, Lourdes Oiarbide, Eustrak talde osoa eta Egoitz Murgoitio dira gorapatu beharreko izen batzuk.

Aurten sortu diren lasterketa bigaz amaituko dugu errepaso arina. Garaiko Triatloi Taldeak lehenengo triatloia antolatu du Garain, eta Mallabiak mendi duatloi zirkuituko lasterketa bat hartu du. ■ Joseba Derteano

ERRUGBIA

Lehia eta ospakizuna

Errugbi denboraldia jaiagaz batu dute aurten Durangon eta Elorrion



DRTko zein Elorrioko talde guztientzako denboraldi berezia izan da aurtengoa.

Errugbia protagonista izan dugu aurten zelai barruan zein handik kanpora. Durango Rugby Taldeak 25 urte egin ditu aurten, eta Elorrio Rugby taldeak 30 urte. Durangaldean errugbiak zeresan handia duela erakutsi dute.

Durango taldeak maiatzean aterazuen jaia kalera. Gaztetxoentzako puzgarriak, antzerki saioak, musika eta bertaratutako en-

Musika, antzerkia, afari herrikoiak... izan ziren urteurreneko ospakizunetan

rea izan ziren ospakizun horietako osagaiak. Horrez gainera, mende laurdenaren ibilbidea jasotzen duen liburua ere argitaratu zuen Durango klubak.

Elorriok ere errugbi partida herrikoiak, afaria eta berbena aukeratu zituen urteurrena opatzeko menu moduan. Bide horretatik, Asier Igarza elorriarra elkarriketatu genuen, eta etorkizuneko lan ildoak azaldu zituen: "Harrobia lantzen jarraitzeko asmoa daukagu. Nagusien taldeak hazi egin nahi badu, oinarri sendoak izan behar ditu".

MOTORRA

Igor Urien eta Fly Group Racing Team protagonista

Motorrari dagokionez, albiste onak eta oparoak utzi dizkigu aurtengo urteak. Batetik, Aitor Martinezen eta Herri Torrontegiren ekimenez gazteak motorean trebatzeko talde berria sortu da: Fly Group Racing Team.

Bestalde, Igor Urien abadiñargazteak Prototipoen Espainiako Txapelketa irabazi du. Bera baino esperientzia zabalagoko auto gidariei nagusitu zaie 17 urteko gaztea. Etorkizunari begira, bide bi aztertzen dabil: Europako Radical Masterra edo For-

Urien gazteak Prototipoen Espainiako Txapelketa irabaztea lortu du aurten

mula 3ko Eurocupa. Eskaintzak baditu, baina babesleak ere behar ditu. Arlo hori lantzen dabilta denboraldi berriari begira.

Aurten Urkiolako Auto Igoe- ra ere antolatu zuen Durangalde Racing Elkartek. Deialdi arrakastatsua izan zen, baina zale batzuek errepidea zakarrez beteta utzi zutelako eta beste arrazoi batzuegatik berriro ez antolatzearabaki dute.

SOKATIRA

Hamar urte eta gero, Abadiño galtzaile izan da sokatiran

Abadiño sokatira taldeak ia 10 urte zeramatzan zortziko goma gaineko txapelketa denak irabazten. Marka ikaragarri hori otsailen hautsi zen. 640 kilora arteko finalean hirugarren amaitu zuen, Sokarriren eta Ibarraren atzetik: "Galtzeak pena ematen du, baina bagenekien errekorra noizbait apurtu behar zela", adierazi zuen Edu Mendizabal entrenatzaileak.

Oro har, Abadiñoko tiralariek denboraldi ona osatu dute, baina muga oso goian jarrita duena etengabeko presioan bizi da. Dena dela, aurten berriro goma gaineko erregetza berreskuratu gura dute. Gainera, 2012ko otsailen munduko txapelketa jokatuko dute, eta hitzordu hori motibagarria da denentzako. Oraingoz, lau txapelketan hiru txapeletatik bi lortu dituzte eta sasoiko daude. Urtarrilean ekingo diote Zortziko Txapelketari.

Denboraldia oso motibatuta hasi dute aurten eta Zortziko Txapelketako erregetza berreskuratu gura dute

Gabonetako Jaiak 2011-12

24 Abenduak
Olentzero

IBILBIDEA (Irteera: 16:30ean)

Udaletxea - Autonomia - Bolatoki-
Psikiatrikoa - Euskal Herria - Olea -
Munibe - Bilbao etorb. - San Andres
etorb. - Zaldia plaza.

Koral elkarteko trikitilariak izango
ditugu giroa alaitzen. Zaldia plazan
JAIOTZA jarriko da.

Oharra: Irteeran ume guztiei txarteltxo
bana emango zaie eta kalejira amaitu-
takoan opariak zozkatuko dira Zaldia
plazan.

Ahal dela, baserritar jantzita etorri.

26 Abenduak
San Eztebe eguna

**18:30etik aurrera, Eskolako
pilotalekuan: Taloak, txorizoak,
urdaia eta gaztaina erreak.**
Koral elkarteko trikitilariak izango ditugu
jaia berotzen.

5 Urtarrilak
Erregeen desfilea

IBILBIDEA
18:30ean, Erregeak helduko dira
Olazar pilotaleku ingurura

Olazar - Euskal Herria - Psikiatrikoa - Olea -
Aranzamendi - Euskal Herria - Udaletxeko plaza

Ez ahaztu! Oraindik erregeei eskutitza
bidali barik badaukazue, orduan izango duzue
eskutitza eurei zuzenean emateko aukera.
Ondoren Udaletxeko balkoitik erregeek agur
esango digute, baina joan baino lehen balkoitik
botako dizkigute gozoki, serpentina eta
sorpresatxoak.

ZALDIBAR
Elizateko Udala

FUTBOLA

Igoera asko, jaitsiera bat

Iurretakok, Zalduak eta Elorriok igoera lortu dute, gizon eta emakumeetan; Kulturalak igoera fasea jokatu du, eta Berrizek maila bat behera egin du



Ekain inguruan, ligak amaitzen joan ahala, ospakizuna nagusitu zen eskualdeko hainbat herritan.

Ftubolak albiste on asko utzi dizkigu aurten. Elorrioko gizonak goren mailatik ohorezko mailara igotzea lortu dute. Elorriok goren maila utzitako hutsunea eskualdeko hiru taldek bete dute: Iurretakok, Zalduak eta Berrizek. Lehenengo biek denboraldi gogoangarriak egin dituzte mailaz igotzeko. Iurretakok bost jardunaldiren faltan lortu zuen igoera. Zalduak gehitxoago itxaron behar izan zuen historia egiteko, baina liga amaitzeko jardunaldi biren faltan, lehenengoz goren mailan jokatzeko eskubidea irabazi zuen. Goren mailan ordezkatzeko gaituen hirugarren taldeari buruz

ezin dezakegu laburpen positiborik egin. Ohorezko mailan luzaroan ibili ondoren maila galdu zuen Berrizek, eta orain Elorrio da Durangaldeko bigarren taldea, Durangoko Kulturalaren atzetik. Hain zuzen ere, ezin dugu gogoratu barik utzi Kulturalaren denboraldia. Axier Intxaurrearen esanetara (orain Zornotza entrenatzen du 2. B mailan), mai-

Jaitsiera bakarra egon da, baina oso esanguratsua: Berriz ohorezko goren mailara

laz igotzeko play offetan sartzea lortu zuen. Ez zuten igoerarik lortu, baina bai azken urteetan apur bat itzalita zegoen zalegoa ilusio-natzea eta piztea; eta hori asko da. **Abadiño eta Ezkurdi** 2011/12 denboraldiko zati bat ere joan da dagoeneko, eta eskualdean badira hainbat talde indartsu dabiltzanak. Denetan Abadiño bereiztu daiteke. Hamabi jardunaldi joan direnean, bigarren erregionaleko liderrak dira. Beste hainbeste esan daiteke Ezkurdi buruz ere; sendo dabil hirugarren erregionaleko lehen postuan, eta mailaz igotzeko borrokan ibiliko da.

SARIA

Bideografik-i saria Gasteizko Mendi Film-en

Durangoko Bideografik ekoiztetxeak euskaraz egindako dokumental onenaren saria irabazi du, abenduan, Gasteizko Mendi Film jaialdian. *Aizkora hotzak goi mendietan* lanagaz. Ibilbide horretan Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariak, eta, Alex Txikon eta Xabier Erro mendizaleek Austrian eta Pakistanen eskaini dituzten aizkora-erakustaldiak azaltzen ditu Bideografik ekoiztetxeak Gasteizko jaialdira aurkeztu duen dokumentalak. Pakistanera zortzimilakoen bila egindako bidaia road movie moduan planteatu dute egileek. Autoan Europa guztia zeharkatu eta Turkiatik Iran eta Pakistan gurutzatuko dituzte, helmugara heltzeko: Felix Baltistan Fundazioa Skardu herrian, Karakorumen erdigunean.

LASTERKETAK

Mallabian duatloia eta Garain triatloia lehenengoz

Urtero lege eskualdeko triatloi taldeek hainbat lorpen utzi dizkigute; Mugarra taldeko Gurutze Frades eta Laubideta taldeko Gorka Bizkarra dira izen azpimarragarrietako bi. Hala ere, norbanako izenak behar baino herri birenak nabar-

mentu ditugu titularrean. Garai-ko Triatloi Taldeak Garain amaitu zuen triatloia antolatu zuen lehenengoz. Mendi duatloi zirkuituko lasterketa batek, berriz, Mallabia izan zuen erdigune. Zale-tasuna sustatzeko ekimen garrantzitsuak izan dira.



Azaroan lehiatu zuten Mallabiko mendi duatloia.

USTARITZ ALDEKOA OTALORA

- **Herria:** Abadiño
- **Adina:** 28 urte
- **Athleticek Betis taldean utzita dihardu futbol jokalaririk**



“Debutatu nuen eguneko ilusioa eta gogoia mantentzen ditut oraindik ere”

“Oraindik futboleko emateko asko dudala erakutsi gura dut aurten Betis taldean”



ANDER ITURRASPE

- **Herria:** Abadiño
- **Adina:** 22 urte
- **Athletic taldeko jokalaria minutu asko jokatzen ari da aurten**

“Jokalaria batek desio duen guztia dut aurten; entrenatzailearen konfiantza eta minutuak”

“Zaleengan ilusioa piztu da, baina guk oinak lurrean ditugula jarraitu behar dugu lanean”

ENERITZ ITURRIAGA

- **Herria:** Abadiño
- **Adina:** 31 urte
- **Atzerriko taldeetan ibili ondoren aurten Bizkaiko Lointek-en dabil**



“Taldea gustura dago nigan, eta ni ere bai eurekin; pozik nago etxera bueltatu izanaz”

“Profesionalizatuago dago txirrindularitza Italian; hemen hobbytzat hartzen da batzuetan”



HILARIO PEREZ

- **Herria:** Durango
- **Adina:** 53 urte
- **Tabirako saskibaloi klubeko presidentea izan da lau urtean**

“Izugarria izan da Tabirako-Baqué lako klub bati ekarpena egiteko aukera izatea”

“Harmailetan egongo naiz aurrerantzean, edozein zale moduan taldea animatzen”


VIRGINIA SAGARDUI

• **Herria:** Durango
• **Adina:** 41 urte
• **DRTn emakumeen entrenatzailea da Euskadiko Selekzioa entrenatu du**



“Euskadik maila itzela izan du, baina datozen urteetarako belaunaldi berria falta da”

“Taldea lehiazteko eta irabazteko osatu gura dugu, baina baita ondo pasatzeko ere”



ILLART ZUAZUBIZKAR

• **Herria:** Abadiño
• **Adina:** 21 urte
• **Orbea taldeak fitxatu du aurten, Euskaltel-Euskadi taldeko filiala**

“Lasterketetan nire burua erakusten zein taldeari laguntzen saiatuko naiz”

“Zaila da sprintean espezialista euskaldunak aurkitzea, etapa asko mendikoak direlako”

LUISA OLEAGA

• **Herria:** Durango
• **Adina:** 16 urte
• **Saharari elkartasuna adierazteko maratoian aritu da**



“Oso gogorra egin zitzaidan maratoia, batez ere, beroagatik; 40 gradura heldu zen”

“Saharrentzako gaitza da kirola praktikatzeko; horretarako hainbat azpiegitura falta zaie”



IGOR AZPIRI

• **Herria:** Elorrio
• **Adina:** 23 urte
• **Mallabiko Biharko Izarrak txapelketako txapeldunordea**

“Gaur egun asko nabil disfrutatzen pilotan, eta nire asmoa gozatzen jarraitzea da”

“Profesionaletan jarduteko aukera sortzen bada, ederto; han edo hemen, pozik nabil”

ARETO FUTBOLA

Hara non egin duten topo!



Hirugarren erregionalean Durangaldeko hiru ordezkari ditugu aurtengo denboraldian.

Denboraldia hasi baino lehenago Sasikoak, Mallabiak eta Elorrioko Buskantzak seguru ez zutela pentsatuko aurten maila berean ibiliko zirenik. Baina horrelaxe suertatu da. Sasikoak maila galdu du, Mallabia mailaz igo da, eta Elorrioko Buskantzak zegoen tokian darrai.

Sasikoak maila galdu arren, ilusioz dakusa etorkizuna; harrobia landu gura dute, eta areto futbola sustatu eskualdean. Mallabiak, berriz, hainbat igoera lortu ditu denbora gutxian. Goren mai-

Sasikoa jaitsi egin da eta Mallabia igo; Elorriokoren maila berean dabilta aurten

Abadiñoko Lagun eta Sapuberri igo egin dira; Mendibeltz jaitsi egin da

latik euskal ligara igo ziren orain urte b,i eta denboraldi bakarrean hirugarren mailara heltzea eta bertan finkatzea lortu dute.

Abadiñoko Lagun taldeak lehen erregionaletik goren mailara igo zuten aurten. 15 puntuko aldea atera zioten bigarren sailkatuari. Sapuberriren lorpena ere itzela da; taldea sortu eta urtebetera lehen erregionalerara igo zuten aurten.

Mendibeltz taldeak, aldiz, ezin izan zion mailari eutsi eta bigarren erregionalean dihardu aurten.

ERREKORRA

Jon Karrok kirola eta diabetesa uztartu ditu

Jon Karro triatleta abadiñarrak helburu bi izan ditu diabetesa diagnostikatu ziotenetik: triatloiaren munduan jarraitzea eta bere antzeko egoeran zeudenei kirolari lotuta jarraitzeko baliabideak eskaintzea.

Bigarren helburu hori gizarteratu asmoz irailean 24 orduz bizikleta gainera igo zen, Durangaldean eta Arratian egokitutako zirkuituan. Nekatuta baina pozik helmugaratu zen Traña-Matienan itxaroten zeuden dozenaka adiskide eta ezagunen txalo artean.

Irailean 24 orduz bizikletara igo zen, eta dokumentala estreinatu du oraintsu

Ondoren, bere esperientzian oinarritutako dokumental laburra aurkeztu zuen Errota kultur etxean: “Ni agertzen naiz dokumentalean, baina helburua ez da nire kasu pertsonala kontatzea, diabetesa dutenei kirolagaz bateragarria dela adieraztea baino”. azaldu zuen. 2012ari begira hainbat erronka prestatzen dabilela ere adierazi du.

TXIRRINDULARITZA

Errepide, ziklo-kros, pista... denetan protagonista

Egoitz Murgoitio marka denak apurtzen dabil



Denboraldi ona amaitu eta hobeari ekin dio Murgoitioiok.

Txirrindularitzak tradizio handia du Durangaldean, eta horrenbestez emaitza on eta emankorrak jasotzen ohituta gaude. Egoitz Murgoitio ederto ibili zen iazko denboraldian, baina denboraldi berriari ekin dionetik bikain dabil. Euskal Herrian zein estatu mailan ez du parekorik. Nazioartean eman behar du goranzko pauso bat; 2012an emango du, seguru.

Errepideari dagokionez, Ene-ritz Iturriagak, Ziortza Iasak eta Lourdes Oiarbidek, esaterako, hainbat lorpen eskuratu dituzte nork bere adin mailan.

Cespa-Euskadi pistako taldeak ere eman ditu albisteak. Tania Calvo, Hodei Mazkarian, Unai Elorriaga eta Iban Leanizbarrutia, besteak beste, maila handian ibili dira.

SASKIBALOIA

Ametsetik errealitatera

Tabirakoko gizonen esperientzia ederra bizi izan dute EBA mailan; ametsetik bueltan, lehenengo bosten artean sailkatzea dute aurten helburu



Besteak beste, Zornotzaren kontrako derbi biak irabazi zituen Durangoko klubak.

Aspaldi izan zela ematen du, baina aurten gertatu da. Ekainera arte, EBA mailan jokatu zuen Tabirakoko, eta Espainia osoan zabaldu zuten klubaren izena eta beragaz lotuta doan filosofia.

Azkenean logika nagusitu zen, eta Durangoko klubak ezin izan zion mailari eutsi. Hala ere, bes-

teak beste, Zornotzaren kontrako derbi biak irabaztea lortu zuten.

Klubaren sostengua harrobia den heinean, gazteek erreleboa ate joka dagoela ere erakutsi dute. Nesketan Tabirakoko kadeteak Euskadiko txapeladunorde geratu ziren; lauko finalean zazpi puntuko aldeagaz bakarrik galdu zuten Donostiaren kontra.

Horrez gainera, Tabirakoko mutilen senior taldea Bizkaiko txapeladun geratu zen, Landakon jokatutako Lauko Finala irabaztea lortu ondoren.

Durangaldeak, baina, Tabirakoz gainera beste ordezkari bi ditu saskibaloian, eta komeni dagogorratzea: Anbotopeko gizonetan eta Zaldua emakumeetan.

PILOTA

Txapelketarik onenetan, eskualdeko pilotariak falta

Txapelketa prestigiotsu asko Durangaldean jokatu arren, kanpoko protagonistak dituzte

Pilotan Euskal Herrian erreferente diren txapelketa asko dago eskualdean; Mallabiko 'Biharko Izarrak', Durangaldeko 'Cafés Baqué' eta Zaldibarko 'Olazar' dira ezagunenak. Zoritzarrez, txapelketa horietako protagonistak ez dira Durangaldekoak.

Biharko Izarrak txapelketan Igor Azpiri elorriarra finalera heldu zen lan itzela osatuz. Txapela Mendizabal eta Untoriak jantzi zuten; biak ala biak profesionletan dabilta gaur egun. Cafés Baqué txapelketan Danel Elezka-

nok jantzi zuen txapela gazteetan, eta Dario Gomezek kadeteetan. Mikel Bereinkua iurretarra finaldietara heldu zen.

Hilaren 31n Olazar pilotako finalak jokatuko dituzte, eta orduan ere ez da eskualdeko ordezkarikegongo. Oizpet txapelketa dugu salbuespen; Berasaluzen IX.ak irabazi zuen nagusietan eta Gardoki durangarrak 22 urtez azpikoan. Herri artekoan ere ez genuen emaitza onik lortu; eta okerreana: Abadiñok eta Berrizek ez zuten talderik osatu ahal izan.



Mendizabal eta Untoriak irabazi dute Mallabiko txapelketa.

Zorionak eta urte berri on!



Abenduaren 24an Olentzero eguna ospatuko dogu.

10:30ean Udaletxe aurrean irteera, etxerik etxe abesten joateko.
Eguerdian bazkaria, parte hartu daben guztientzat Otea Loran elkartearen.
Ondoren hirigunean jarraituko da abesten.



GARAIO UDALA



Gazteek Interneten erabiltzen duten hizkuntzan eragin guran

Kale erabileraren ispilua da gazte eta nerabeek sare sozialetan erabiltzen duten hizkuntza. Sarri, gaztelera izaten da.



Telebista aurrean baino denbora gehiago igarotzen dute gaur egungo nerabe eta gazteek interneten eta sare sozialetan. Baina zer hizkuntza erabiltzen dute? Topaguneak, Soziolinguistika Klusterrak eta Kultur Kabiak egindako azterketa baten arabera, gaztelania da nagusi nerabeen internet bidezko hartu-eman informalean.

Kaleko ohituren ispilu da nolabait sare sozialetako erabilera. Hizkuntza gaitasuna izan arren, joera hori dela ondorioztatu dute azterketa horretan. Kultur Kabiak eta Topaguneak interneten dituzten aisialdi programen bidez egin dute azterketa. Sare sozialetan eurretako ikerlari batek euskaraz egiten izan duenean erantzunak euskaraz izan dira, baina nerabeek euren artean, orokorrean, gaztelaraz egiten dutela ikusi dute.

Erabilera ohiturak aldatzea, bai kalean bai mundu birtualean, ez da erraza, baina arlo horretan

hainbat ahalegin egiten dira sarean, euskaraz hutsezko produktuak sortuta. Gazteak erakarri eta aisialdian naturaltasunez euskaraz erabiltzea izaten dute helburu produktu horiek.

Hizkuntza gutxituak IKTetan
Teknologia berrien aro honetan, teknologia berak ez ditu hizkuntza gutxituak salbatuko, baina euren berreskurapenerako garrantzitsua da hizkuntza horiek Informazio eta Komunikazio Teknologiaetan (IKTetan) presentzia edukitzea; arlo guztietan ekin behar zaio normalizazioari.

“Jokabideak eskaintzaren arabera aldatzen dira”: Foru Aldundiko Euskara zuzendari Miren Dobaranen berbak dira horiek. Etorkizunerako erronka bide horretatik doa: interneten aisialdiari begirako euskarazko eskaintza hazten bada, gazteek produktu horiek kontsumituko dituzte, eta eurekin batera euskara.

Euskaraz gai izan arren, hartu-eman informalean gaztelera erabiltzen dute askok

Internet sarean presentzia izatea garrantzitsua da hizkuntza gutxituentzat

“Gazteek gustuko dituzten arloetan euskara natural erabili dezaten gura dugu”

Miren Dobaran Aldundiko euskara zuzendariarentzat beharrezkoa da administrazioek teknologia berrietan euskaraz jarduteko aukera ematea

Gazteentzat, teknologia berriak eguneroko zati garrantzitsua dira. Gazte euskaldunak teknologoak dira: internetarako sarbidea dute gehienek, denboratxoa pasatzen dute interneten, eta ordenagailuez gain, mugikorrik puntakoenak izaten dituzte internetagaz.

Zer hizkuntza ohitura dituzte? Sare sozialetan, batez ere komunikazio informalean, gazteleraz egiten dute euren artean. Ez da egoera katastrofikoa; gazteen % 20 inguruk euskaraz nabigatzen du, eta hizkuntza gutxitu batentzat ez da datu txarra, baina hobetu daiteke. Horretarako aukerak eskaini behar dira.

Aisialdian ikusten duzue hutsune handiena? Irakaskuntzan eta etxerako lane-

“Gazteen % 20 inguruk euskaraz nabigatzen du; hizkuntza gutxitu batentzat ez da datu txarra, baina hobetu daiteke”

“Askok D ereduan ikasi dute, baina ez daukate horrenbeste aukera euren inguruan euskaraz aritzeko”

tan euskarazko iturrietara naturaltasunez jotzeko ohitura dagoen moduan, beste arloetan, eta kasu honetan aisialdian, ez horrenbeste. Gazteek gustuko dituzten arloetan euskaraz naturaltasunez jardutea lortu gura dugu.

Ez da hain erraza izango euskaraz egiteko ohitura sortzea. Bilbon eta herri ertain eta handietan euskaldun asko familia erdaldunekoak dira, eta defizit hori daukate. D ereduan ikasi dute eta badakite euskaraz, baina ez daukate horrenbeste aukera euren inguruan euskaraz berba egiteko. Administrazio publikoak aisialdirako eta teknologiarako aukerak eskaini behar ditu. Etena egon da etxe askotan transmisioan, eta horrek erabileran eragin handia izan du. Etxetik kanpora, hezkun-



tza arloan, euskararen presentzia nahiko ziurtatuta dago, eta aisialdia erronka garrantzitsua da. Euskararentzat ez da ona arlo akademikoan bakarrik gelditzea.

Kontua ez da euskaraz egitera derrigortzea. Produktu onak eta erakargarriak eskaintzen badiugu, gazteek kontsumitu egingo dituzte. Konturatu barik eta naturaltasunez euskaraz egingo dute webgune eta sare sozial horietan. Ingeleseko produktuak ere kontsumitzen dituzte, nahiz eta hizkuntza maila handia ez izan, gustuko dituzten gaiak topatzen dituztelako hizkuntza horretan. Erabiltzen hasteko eskaini egin behar da. Eskaintza handituz gero, eskari hori egon egongo da.

Nerabezaroan gaztelerarako joera hartzen du hainbat gaztek... Bai, eten moduko bat egoten da, eta gaztelerazko joera hartzen dute

“Nerabezaroan ahalik eta euskara erabiltzaile gutxien galtzea erronka garrantzitsua da”

hainbatek. Gero, nagusitzean, hartzen duten kontzientziaren arabera, euskaraz berba egitera bueltatu daitezke, baina buelta hori egin ezean oso gaitza da berreskuratzea; hizkuntza erabiltzeko erraztasuna galdu egiten da. Horregatik aha- legindu beharko ginateke nerabezaroan ahalik eta erabiltzaile gutxien galtzen. Hori erronka garrantzitsua eta polita da nire ustez. Aldundiarentzako estrategikoa da gai hori lantzea, eta horregatik, krisia gorabehera, euskara zuzendaritzak aurrekontuak mantendu ditu.

Euskarazko musika taldeei begirako Banden Lehia



Duela gutxi jaso dugu Banden Lehia leihaketako irabazlearen berri; Eloreko Namek Planet taldeak irabazi du 2.000 euroko opari-txekea eta BBK Live jaialdian kontzertua eskaintzeko aukera.

Euskaraz kantatzen duten taldeak sustatzeko helburuagaz sortu zen Banden Lehia. Aurten 52 taldek parte hartu dute, eta taldeek gutxienez euskarazko abesti baurkeztu behar izan dituzte lehiaketara. Aldundiko euskara zuzendaria adierazi duenez, “sorpresa” izan da partaide kopurua. Azaldu duenez, “talde batzuek normalean euskaraz barik ingelesez edo gazteleraz kantatzen dute, eta lehiaketa honetarako euskarazko abestiak sortu dituzte”.

Euskarazko Wikipedia aberastu guran

Arlo akademikoan tresna oso erabilgarria da ikasleentzat wikipedia. Bertan euskarazko 107.000 artikulua inguru daude dagoeneko, eta oraindino bide handia dago hobetzeko.

Wikiak proiektu parte-hartzaileak direnez, jakintza duen edonork parte hartu dezake edukiz hornitzen. Parte-hartze hori bultzatzeko, Aldundiak eta Azkue Fundazioak elkarlanean, Ugarteburu sariak banatzen dituzte. Hasieran zientzia arloko artikuluei zuzendutako sariak ziren, baina orain zuzenbidea lako arloetara zabaldu dute.



Azkue Fundazioa, euskara sarean josteko helburuagaz

Lehiaketak eta sareko jakintza librearen inguruko ekitaldiak, besteak beste

Euskararen garapenerako teknologia berrien garrantziaz jabetuta, euskarazko produktu erakargarri eta erabilgarriak eskaintzeko sortu zuten Azkue Fundazioa. Orokorrean euskaldun guztientzako jarduerak antolatzen ditu fundazioak, baina batez ere gazteei begirako beharra egiten du. Lehiaketak, jolasak eta sareko jakintza librearen ingu-

ruko jardunaldiak antolatzen dituzte, besteak beste. *Kaixo Frankie!* bideojokoa ere itzuli dute euskarara, eta jokoa Bizkaiko hainbat txokotan kokatu dute.

Banden Lehia eta BandaBeat ekimenetako bultzatzailea da Azkue Fundazioa, eta euskarazko wikipedia garatzeko ere egiten du lan.

Durangoko Azokan *#keinukaeuskarari* egitasmoa antolatu zuen fundazioak. Guztira, 800 argazki lortu zituzten euskararen aldeko keinua egitera gerturatu ziren bisitariekin. Argazki horiek twitter eta facebook bidez zabaldu zituzten, sare sozialak erabiliz euskararen aldeko keinu bat egiteko helburuagaz.

Durangoko Azokan #keinukaeuskarari ekimenean euskararen aldeko 800 argazki ateratzea lortu zuten



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EMEK ANTOLATUTAKO GABON EKINTZAK

2011



Umeentzako ipuin
lehiaketa "dendak
zabalik herria bizirik"
lelopean. Hiru sari eta
parte-hartzaileentzako
saritxo bat.



Leiho, balkoi
eta etxe aurreak
gabon giroan jartzeko
lehiaketa. Sari bi eta
parte-hartzaileentzako
saritxoak



2100 euroko erosketa- txartela
zozketatuko da bazkideen
dendetan trukatzeko. 2012ko
urtarrilaren 9an zozketatuko da

Bazkideen arteko Gabonetako
erakusleihoen lehiaketa. Sari bi egongo dira.



elorriko merkatarien elkarte

*Zorionak eta
urte berri on*



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

BERBAZ >



MARTHA SANDRA BUSTILLOS ETA ARTURO MUYULEMA

Herri indigenetako ekintzaileak

“Gure hizkuntzak espainolaren parekoak izan daitezkeela ikusi dugu Euskal Herriko bisitan”

“Gobernuen eta indigenen artean borrokak egon dira beti, mundu ikuskerak ez direlako berdinak”

Herri indigenetatik Euskal Herrira Hizkuntza Gutxituen Berreskurapenerako Mai-sutza ikastera etorritako hainbat lagunen bisita izan dugu ekainean. Martha eta Arturogaz edukitako berbaldian, hizkuntza aimara eta ketxuaren gainean eta hizkuntzek mundu ikuskeragaz duten loturaren gainean jardun dugu.



JON LASUEN

Otxandioko bonbardaketa bizi izan zuen

“Bonbardaketa eta gero, Otxandioko etxe guztietan falta zen baten bat”

“Omenaldiak beharrezkoak dira. Desastrea izan zen; hainbeste hildako, zertarako?”

Hamalau urte zeuzkan Jon Lasuenek Otxandio bonbardatu zutenean. Kalean harrapatu zuen bonbardaketak, eta justu-justu irten zuen bizirik. Duela 75 urteko egun hura eta garai haiek zelan bizi izan zituen kontatu digu. Hainbat senide galdu zituen bonbardaketan.

MARIA GONZALEZ

Kazetaria

“Gaztelarazko titularretan euskarazkoetan baino horikeria gehiago egoten da normalean”

“Albistegietako gaiak ez dira arinkieriaz landu behar; gizartean parte hartzeko gakoak eskaintzen dituzte”



Doktoretza tesian euskarazko albistegin-tzaren kalitatea aztertu du Mallabian bizi den kazetari durangarrak. Euskal Herrian gehien kontsumitzen diren hedabide erdal-dunekin alderatu ditu ETB1ek, Euskadi Irratiak, Euskaldunon Egunkariak eta Berria egunkariak azken urteotan egindako ibilbideak.

EDUARDO BAJULIAN IZAGA, MARIJE OROBIO-URRUTIA ETA GARAZI ETXEBARRIA

Ume saharauiak hartzen dituzte etxean

“Ume saharauiak ezagututa, ezin dugu hango egoeraren aurrean geldirik egon”

“Hemen gauza asko galtzen gabiltzala konturatzen zara kanpamentuetan; berba egiteko patxada, adibidez”



Uda amaitu aurretik, etxean ume saharauiak hartzen dituzten familiekin jardun dugu berbetan. Herria elkartearen bidez etortzen dira umeak Durangaldera. Familiek, umeekin izandako esperientzia kontatzeaz gain, Tindufeko kanpamentuetan ikusitakoak ere azaldu dizkigute.



JUANITO GALLASTEGI

Abadea

“Nire belaunaldiak oso momentu interesgarriak bizi izan ditu herriari eta elizari dagokionez”

“Seminarioan Gernika eta Durango gorriek erre zituztela entzutean, hori ez zela horrela izan esan nuen”

Tontorretik begira liburua kaleratu du Juanito Gallastegi abade durangarrak. Abadetzan 50 urte bete berritan hasi zuen liburuaren proiektua. Ez da biografia bat: bere bizipen eta hausnarketa batzuk batu ditu liburuan: umetako oroipenak, seminario-ko urteak eta abade egondako herrietako kontu batzuk bildu ditu.



ZEILIA ETA SILVIA URRUTXI

Erreka Mari panpin tailerreko kideak

“Umeek sentitu egiten dute panpinak egitean jartzen dugun maitasuna”

“Guk egindako panpinen aurpegiak neutroak dira, eta umeek irudimena lantzen dute emozioak imajinatzeko”

Amatasunaren premiak bultzatuta, umeentzat eta umeekin eskulana egiten hasi zen ama talde bat. Azken urteetan beste guraso batzuekin elkartu dira, eta Erreka Mari panpin tailerra sortu dute. Euren ikastaroetako baten leloak dioenez, “heldu batek ume bati eman diezaiokeen jostailurik onena eskuz egindakoa da”

JOSE ALFARO

Geu Be elkarte-ko koordinatzailea

“Durangaldean geroago eta jende gutxiagok begiratzen gaitu arraro”

“Gure gazteek edozein gaztek egin gura duena egin gura dute; kontzertuetara joan, kirola egin, poteoan irten, ligatu...”



Irailean Geu Be elkar- teak Durangaldeko Urritasunaren Eguna antolatu du, kalean urritasuna arrunt bihurtzeko helburuagaz. Elkarriketan Jose Alfaro- k auzokideen arteko hartu- emanak eta elkarrekin gauzak egiteak daukan garrantzia nabarmendu ditu gurekin edukitako solasaldian.

IMANOL MADARIAGA

Irakaslea, AHTren kontrako ekintzailea

“Jendeak badauka oraindino AHTa lako proiektuak gelditzeko gogoa eta indarra”

“Guk ez genuen ezer arriskuan ipini; desordena publikoa ertzainek sortu zuten, pilotakadaka”



Urbina 2009an AHTaren kontrako martxan atxilotutakoen epaiketa hasi da urrian. Sei pertsonari desordena publikoa eta lesio faltak leporatu dizkiete; tartean, Imanol Madariaga durangarrari. Urbina Ertzaintzak edukitako jarrera bortitza salatu eta 1.600 autoinkulpazio sinatu dituzte *Ni ere Urbina egon nintzen* elkartasun kanpainan.

HEMEN BIZI >

Kirol Errota gimnasiokoak garaile fitnesssean



Abdelkrim eta Iñaki, Euskadiko fitness finalean, Gernikan.

Fitnesssean Euskadiko txapeldun eta txapeldunorde dira Iñaki Mateos eta Abdelkrim Amlata, hurrenez hurren. Ekainaren 4an jokatu zuten txapelketa Gernikan, eta Durangoko Kirol Errota gimnasioko kide horiek muskulu oneak dituztela erakutsi zuten. Abdelkrim Durangon bizi da, eta Iñaki Eibarren.

Euren prestaketari buruz berba egin zigun Iñakik: "Jaten duguna gara, eta hori da garrantzitsua; pisuekin-eta lan egin dezakezu gimnasioan, baina dieta on bat egin ezean ezin da gorputzeko pisua kendu edo irabazi". Oraindik gehiegi zabaldu bako kirola izan arren, "gazteak ikusita harro-bi ona dago hemen", dio Iñakik.

Asto bi, zaldia eta idia probalekuan lehiatu zirenekoa

Iurretarek desafiozaleak direla erakutsi izan dute behin baino gehiagotan. Horren adibide izan zen irailaren 3rako prestatu zutena: asto bi, zaldia eta idia nor baino nor ipini zituzten probalekuan. Harria Herri kirol elkarteak antolatuta, Construcciones Vitorio Zelaiaren asto bi, Urkiaga aroste-giko zaldia eta Etxabe-Altunaren idia izan ziren parte hartzen.

Harria taldeak hiru urte daratza herri-kirolen inguruko ekitaldiak antolatzen. Iaz, adibidez, asto eta zaldiekin prestatu zuten erakustaldia. Jaien bueltan eratu-tako probek ere arrakasta izan dute; pertsonak animalien zein makinak kontra ipini izan dituzte, esate baterako.



Astoa eta zaldia, aurrez aurre proba egin baino lehenago.

'Erromeri show'-ari amaiera eman dio Edan taldeak



Edan taldeko musikari eta abeslariak, mozerro eta guzti.

Hiru urtez isilik egon ondoren, otsailaren 4an Abadiñoko San Blas jaietan bueltatu zen Edan taldea eszenatokira, "despedida"-ri hasiera emateko. Izan ere, epe mugatu-ko itzulera izan zen, azaldu zigitenez. Aurten hainbat kontzertu eman dituzte Euskal Herrian zehar, euren *Erromeri show* berezia zabalduz. Dantzaldietako musika eta parodia uztartu izan dituzte, Egan nahiz beste talde batzuen bertsoak eginez.

Irailaren 30ean Iurretan eta urriaren 7an Durangon eskainitako emanaldiekin -eurek *Espulie* deitutakoa- esan zuten agur. "Edan taldeari eskerrak geure buruari barre egiten ikasi dugu", zioten orrialde hauetako elkarrizketan.



LANDER RAYA

•Durango
•Madrilen bizi da; M15 mugimenduko kidea
"Sol plazako lorpenik handiena kontzientzietan eragitea izan da"

IBAI URIEN

•Abadiño, Sagasta auzokoa
•Pintorea da ofizioz, dantzazalea afizioz

"Kalean hara eta hona ibiltzea ere eskatzen du nire beharrak"



JONE MIREN GOENAGA

•Durango
•Telebistako ekoizlea eta Platerueneko lehendakaria

"Arguiñanoren eguerdi bueltako platerak hegan egiten du platoan"

FELIX AJURIA

•Otxandio
•12 urte daroaz artzai eta gaztagile, Oletan

"Ardia, udan, mendian baino hobeto ez dago beste inon ere"



MARIBI CARRILLO

•Mallabia
•Ogi banatzailea eta dantzazalea da

"Dantzari eskerrak jende asko eta asko ezagutu ahal izan dut"

USUE MARTINEZ

•Durango
•Ikaslea; iragarkia egin du David Bisbalegaz

"Ez nuen uste Bisbal hain hurrekoa izango zenik"





ABENDUAREN 24a Larunbata	OLENTZERO ETA MARI DOMINGI TXOKOLATADA. <i>Euria eginez gero Landako Gunean KALEJIRA.</i> Txiri Txiri, Txoritxu Alai, Tronperri, Iñurri, Ludoteka, Tabira Musika Banda, B.Ertzilla Musika Eskola, Tikitixa eta Pandero Eskolak <i>Euria eginez gero, ez da desfilerik egingo.</i> EMANALDIA: "OLENTZEROREN GUTUNAK"	16:30 Bartolome Ertzilla Musika Eskola 17:00 B. Ertzilla Musika Eskola, Astarloa kalea, Andra Mari, Zumalakarregi, Ermodo, Landako Gunea 18:00 Landako Gunea
ABENDUAREN 25a Igandea	GABON KONTZERTUA: TXISTUA, METALAK, PIANO ETA ABESLARIAK Jaizale Durangaldeko txistulariak	13:15 Santa Anako eliza
ABENDUAREN 26a Astelehena	IZOTZ PISTA Abenduaren 26tik urtarrilaren 8ra (biak barne)	Landako Gunea
ABENDUAREN 26, 27, 28, 29, 30	GABONETAKO HAUR PARKEA	10:30-13:30 / 16:00-20:00 Umeak doan. Helduak: 1€
URTARRILAREN 2a eta 3a	GABONETAKO HAUR PARKEA TXU TXU TRENA	Landako Gunea
URTARRILAREN 5a Osteguna	ERREGEEN KABALGATA Congregaciones Marianas	18:30 F. Juan de Zumárraga 19:00 Ezkurdi 19:20 Udaletxeko Plaza 20:00 Andra Mariako elizpea
URTARRILAREN 7a Larunbata	PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS "ZAZPIKOLOROA" Sarrerak salgai (aforoa bete arte). Pinondo Etxea: abenduaren 20tik aurrera. (gehienez ere 10 sarrera pertsonako) ABESBATZEN KONTZERTUA Bogoroditsie Abesbatza	2 emanaldi: 16:00 eta 18:30 Prezioa: 3 €. Landako Gunea 20:00 San Frantzisko eliza
URTARRILAREN 8a Igandea	JAEDeko ZOZKETA BENEFIKOA	18:00 Andra Mariako elizpea



CENTROS DE BRICOLAJE



Brico Centro



sake

www.atb-bricolajes.com



149'95 €

ARMAIRUA

**GABON HAUETAN
ERAMAZU OPARI BAT
BRICOCENTROREKIN**



39'95 €

TXIMINIA ETA
BARBAKOA
XURGAGAILUA

Bertan izango dozu:

Elektrizitatea
Burdindegia
Lorezaintza tresnak
Fitosanitarioak
Pintura eta osagarriak
Animalia txikien elikadura
Etxeko tresnak
Garbikariak
Arropa eta oinetakoak
Automobil tresnak



29'95 €

HAURREN MULTZOA
MAHAIA ETA
BI AULKI



39'95 €

MAHAI
TOLESGARRIA
(zuria)

12'95 €

AULKI TOLESGARRIAK
(zuriak)



99'95 €

DREMEL KIT



79'95 €

BIHURKINA

SAKE S.A. BRICO CENTRO EUSKOLUR

Eitua Industriagunea • San Fausto eraikina, 1 • 48200 BERRIZ

Tel.: 94 622 53 34 • Fax: 94 622 54 56 • euskolur@sake.es